Hondarribiko
Udala

**Esp.: 2024PLEN0011**
**Erref.: GU /** AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIAK 2024KO URRIAREN 24AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hogeita lauko urriaren hogeita lauan udaletxe honetako Batzar Aretoan Udalbatza bildu da Igor Enparan Araneta jaun **alkate-udalburuaren** lehendakaritzapean, eta ondoren aipatzen diren **udalkideak** partaide direla:

**Alkateordeak:**

Estitxu Urtizberea Sorzabal and.
Garoa Lekuona Izeta and.
Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Josu Peña Alza jna.
Ortzi Alonso Murelaga jna.

**eta zinegotziak:**

Aitzol Arroyo Tumas jna.
Tamara Yaoska Sastre Castillo and.
Gonzalo Carrión Insausti jna.
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Ainhoa Martinez Arrieta and.
Ander Ribes Lazcanotegui jna.
Alaitz Zabala Zarauz and., bilkuran 18:14an sartu dena, 4. puntuaren eztabaidan, eta bilkuratik 20:35ean atera dena, Erregu eta Galderen puntuan.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Koldobika Rodriguez Akarregi jna.

Ezin etorria adierazi dute: María Serrano Olascoaga eta Maria Noemi Odriozola Pascual andreek.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa egin dute arratsaldeko seietan, Gorka Urgoiti Agirre Udal idazkari jauna ere bertan naizela.

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE HONDARRIBIA EL DIA 24 DE OCTUBRE DE 2024.**

En la Ciudad de Hondarribia a veinticuatro de octubre de dos mil veinticuatro se constituye el Ayuntamiento Pleno en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **alcalde-presidente,** D. Igor Enparan Araneta, y con la asistencia de los/as **tenientes de alcalde Sres./as.:**

Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal.
Dª Garoa Lekuona Izeta.
Dª Guadalupe Queiruga Oronoz.
D. Josu Peña Alza.
D. Ortzi Alonso Murelaga.

**y de los concejales y las concejalas Sres./as.:**

D. Aitzol Arroyo Tumas.
Dª Tamara Yaoska Sastre Castillo.
D. Gonzalo Carrión Insausti.
D. Juan Luis Silanes Aguirre.
Dª Ainhoa Martinez Arrieta.
D. Ander Ribes Lazcanotegui.
Dª Alaitz Zabala Zarauz, la cual se ha incorporado a la sesión a las 18:14, durante el debate del punto 4º, y ha abandonado la sesión a las 20:35, en el punto de Ruegos y Preguntas.
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.
D. Koldobika Rodriguez Akarregi.

Han justificado su ausencia: Dª María Serrano Olascoaga y Dª Maria Noemi Odriozola Pascual.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las dieciocho horas y un minuto, asistidos/as de mí, el secretario, D. Gorka Urgoiti Agirre.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Arratsalde on guztioi. Ongi iruditzen bazaizue, arratsaldeko seiak diren honetan Hondarribiko Udaleko ordenantza….uy, barkatu, Hondarribiko Udaleko Ohiko Bilkura hasiko gara.

Jaso duzuen gai zerrendan…aztergaien zerrendan edo, hamaika puntuz jasotako Udalbatza izango dugu, eta gaurkoan Ezohiko Udalbatza deialdia izan da, izan ere Ordenantza Fiskalak onartzeko prozeduraren barruan teknikoki eskatu zitzaigun astebete aurreratzea beharrezkoa zela, urtea amaitu aurretik indarrean egon ahal izateko ordenantza fiskal hauek, eta hilabete honetan justu 31rekin dugu azken osteguna, eta epez oso larri ibiliko zirelako horretan, edo ginelako horretan, eskatu zitzaigun astebetez gutxienez aurreratzea, eta horregatik elkartu gara hemen. Hau oinarri hartuta eskerrak eman nahi dut Udalean elkartu garen udal ordezkari guztioi gaur hemen egoteko egindako saiakeragatik.

Bilkura hasi ondoren, honako zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dira:

Intervenciones:

**EL SR ALCALDE:** Buenas tardes a todas y todos. Si os parece bien, a las seis de la tarde comenzaremos la Ordenanza…uy, disculpad, la Sesión Ordinaria del Ayuntamiento de Hondarribia.

En el orden del día que habéis recibido se da cuenta de una sesión plenaria compuesta por once puntos; Se ha convocado para hoy un Pleno Extraordinario, ya que dentro del procedimiento de aprobación de las Ordenanzas Fiscales se nos pidió técnicamente que se adelantara una semana la sesión para que pudieran estar en vigor antes de fin de año, ya que este mes el último jueves es el 31 de octubre, e íbamos a estar muy justos con respecto al plazo; así, se nos pidió que adelantáramos al menos una semana, por lo que nos reunimos hoy aquí. Teniendo esto en cuenta, quiero agradecer a toda la representación municipal reunida hoy en el Ayuntamiento el esfuerzo realizado para estar hoy aquí.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del orden del día:

## IDAZKARITZA

### 1.-HONAKO BILKURETAKO AKTEN IRAKURKETA ETA ONARPENA, BIDEZKOA BADA:

***2024KO MAIATZAREN 30EKOA.**
***2024KO EKAINAREN 27KOA.**
***2024KO IRAILAREN 3KOA.**

Udalbatzak 2024ko maiatzaren 30, ekainaren 27 eta irailaren 3ko bilkuretako aktak irakurri ondoren.

Aktak bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (4), EH Bildu (2) eta PSE-EE-PSOE (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aho batez, hauxe **ERABAKI DU**: Udalbatzak 2024ko maiatzaren 30, ekainaren 27 eta irailaren 3ko bilkuretako aktak

## SECRETARÍA

### 1.-LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SIGUIENTES SESIONES:

***30 DE MAYO DE 2024.**
***27 DE JUNIO DE 2024.**
***3 DE SEPTIEMBRE DE 2024.**

Dada lectura de las actas de las sesiones plenarias celebradas los días 30 de mayo, 27 de junio y 3 de septiembre de 2024.

Sometidas a votación las actas, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (4), EH Bildu (2) y PSE-EE-PSOE (1).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:** aprobar las actas de las sesiones plenarias celebradas los



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

onartzea.

días 30 de mayo, 27 de junio y 3 de septiembre de 2024.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Lehenengo puntutik abiatuko gara, eta lehenengo puntuan hiru bilkuretako akten irakurketa eta onarpena dakarkigu, 2024ko maiatzaren hogeita hamarrekoa, ekainaren 27koa, eta irailaren 3koa. Dokumentazioa jaso da, ez dakit ekarpenik badagoen? Bozkatuko dugu, beraz. Aldeko bozkak? aho batez onartua.

**EL SR ALCALDE:** Comenzaremos con el primer punto, que trata de la lectura y aprobación de las actas de tres sesiones plenarias: la del 30 de mayo, la del 27 de junio, y la del 3 de septiembre del 2024; se ha recibido la documentación…¿hay alguna aportación? Entonces, procederemos a votar. ¿Votos a favor? Aprobadas por unanimidad.

**ALKATETZA**

**ALCALDÍA**

**2.-2024KO 2. HIRUHILEKOAREN HIRUHILEKO INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA: ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA, MERKATARITZA OPERAZIOETAN DAGOEN BERANKORTASUNA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOA.**

**2.-DAR CUENTA DE LA INFORMACIÓN TRIMESTRAL RELATIVA AL 2º TRIMESTRE DE 2024: PERIODO MEDIO DE PAGO, MOROSIDAD EN LAS OPERACIONES COMERCIALES Y EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO.**

2024. ekitaldiko 2. hiruhilabetekoari dagozkion ordaintzeko batez besteko epeari, merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari eta aurrekontuaren exekuzioaren hiruhileko informazioari buruzko espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la información trimestral relativa al periodo medio de pago, morosidad en las operaciones comerciales y ejecución del presupuesto relativos al 2º trimestre del ejercicio 2024.

2024ko urriaren 11ko Udal diruzain andrearen txostenaren berri eman dute, 2024. ekitaldiko 2. hiruhilabetekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epeari eta merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari buruzko hiruhileko informazioaz.

Se da cuenta del informe de 11 de octubre de 2024 de la Sra. tesorera municipal en relación a la información trimestral relativa al periodo medio de pago y a la morosidad en las operaciones comerciales del 2º trimestre del ejercicio 2024.

2024ko urriaren 11ko Udal kontu-hartzaile jaunaren txostenaren berri eman dute, 2024. ekitaldiko 2. hiruhilabetekoari dagokion aurrekontuaren exekuzioari buruzko hiruhileko informazioaz.

Se da cuenta del informe de 11 de octubre de 2024 del Sr. interventora municipal en relación a la información trimestral relativa a la ejecución del presupuesto relativa al 2º trimestre del ejercicio 2024.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Bigarren puntuari dagokionean 2024ko bigarren hiruhileko informazioaren berri ematea da, ordaintzeko batez besteko epea, merkataritza operazioetan dagoen

**EL SR ALCALDE:** En cuanto al segundo punto, trata de proporcionar información sobre el segundo trimestre de 2024, el plazo medio de pago, la morosidad en las operaciones comerciales y la

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

berankortasuna, eta aurrekontuen exekuzioari dagokiona da.

Bueno, ekainaren 30era arteko urteko kontuen informazioa emango dugu gaur, horrela jasotzen delako Foru Aldundiaren araudian, eta baita Udalbatza honetan onartutakoa ere, eta hori oinarrituta dago, neurri batean, aurrekontuen egonkortasuna eta finantza iraunkortasunari dagozkion printzipioetan, informazio hau hilean behin berri ematea udalkideei, eta horregatik aipatu nahi nuke merkataritza operazioetan bataz besteko ordaintzeko epea eta berankortasuna 5,8 egunetan dagoela, ia sei egunetan… bueno esan beharra daukat ia sei eguneko epe hori desberdina dela bai udalari dagokionean, bai Hondarribia Lantzeni dagokionean, eta Arma Plaza Fundazioari dagokionean… kezkatzekoa da, behin eta berriro aipatu izan dugun bezala, Hondarribia Lantzenen 40 egunetik gorako berankortasunarekin ordaintzen ari gara fakturak, eta… bada… bueno, aspaldian dugun arazoa da, eta horri konponbidea emateko zailtasun honetan bagabiltza, nahiz eta dakizuen bezala Hondarribia Lantzenen inguruko likidazio prozesuan ere martxan bagabiltzan, eta espero dugu datozen hiruhilekoetan edo, egoera hau zuzentzea eta bai Hondarribiko Udalak eta bai Arma Plaza Fundazioak betetzea arauak ezartzen dituen berankortasun data horiek.

Bestela, bueno… ekitaldi honetako bigarren hiruhilekoari dagokionean, Hondarribiko Udala, Hondarribia Lantzen eta Arma Plaza fundazioak 4 milioi eurotik gorako ordainketak egin ditu, eta aipatu beharra daukat bigarren hiruhileko honetan 4 milioitik gorako ordainketa horiek, lehen aipatu dudan bezala, orokorrean 6 egunetik beherako prozedura administratiboan ordaindu direla. Bestalde ere, lehen esan dut, aurrekontuaren exekuzioari dagokion informazioa ere ematen dela hiruhilero, eta bigarren hiruhileko honetan, laburbilduz eta xehetasun guztietan sartu gabe, bai aipatu nahi nuke diru-bilketa likidoa edo jasotako ekarpenak ekainaren hogeita hamarrera arte ia 12.200.000 eurokoa izan dela, eta gauzatutako gastuak edo ordainketa likidoak aldiz ia 12.700.000 eurokoak izan direla. Beraz, orokorrean hauek dira eman beharreko datuak, ez dakit nolabaiteko xehetasun gehiago behar den, edo berri emantzat ematen dugun bigarren puntu hau.

ejecución presupuestaria.

Bueno, hoy vamos a informar sobre las cuentas anuales hasta el 30 de junio, porque así se recoge en la normativa de la Diputación Foral, y en la aprobada por esta corporación, lo cual está, en cierta medida, basado en los principios de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, en que esta información se comunique mensualmente a la corporación; por lo que me gustaría mencionar que el plazo medio de pago y la morosidad en las operaciones comerciales es de 5,8 días, casi seis días... Bueno, he de decir que ese plazo de casi seis días es distinto en el caso del Ayuntamiento, en el de Hondarribia Lantzen y en el de la Fundación Arma Plaza... Es preocupante que, como venimos reiterando, estamos pagando facturas con una morosidad superior a 40 días en Hondarribia Lantzen, y... bueno es un problema que tenemos desde hace tiempo y nos está costando solucionarlo, aunque como sabéis también estamos trabajando en el proceso de liquidación de Hondarribia Lantzen, y esperamos corregir esta situación en los próximos trimestres, y que tanto el Ayuntamiento de Hondarribia como Arma Plaza Fundazioa cumplan los plazos de morosidad establecidos por la norma.

Por otro lado, bueno... en lo que respecta al segundo trimestre de este ejercicio, el Ayuntamiento de Hondarribia, la Fundación Hondarribia Lantzen y la Fundación Plaza de Armas han realizado pagos por importe superior a 4 millones de euros, y he de reseñar que en este segundo trimestre los pagos por importe superior a 4 millones, como he dicho anteriormente, se han pagado en un procedimiento administrativo, en general, inferior a 6 días. Por otra parte, como he mencionado, también se ofrece información trimestral de la ejecución presupuestaria, y en este segundo trimestre, en síntesis y sin entrar en detalle, me gustaría señalar que la recaudación líquida o las aportaciones recibidas hasta el 30 de junio han sido de casi 12.200.000 euros, mientras que los gastos o pagos líquidos realizados han sido de casi 12.700.000 euros. Por lo tanto, en general, estos son los datos a aportar, no sé si se necesita algún tipo de detalle, o si se da por informado este segundo punto.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

**3.-2024-2026 EKITALDIETARAKO HONDARRIBIKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETAREN ONARPEN DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

2024ko urriaren 4ko 2024/2695 Alkate Dekretuaren berri eman da, 2024-2026 ekitaldietarako Hondarribiko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketaren onarpenenari buruzkoaz.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Oso ongi, pasako gara hirugarren puntura, ongi iruditzen bazaizue, 2024 eta 2026 ekitaldietarako Hondarribiko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketaren onarpen dekretuaren berri ematea da 3. puntua, hau da, beste berri-emate bat, eta gogoratuko duzue onartu genuela plan estrategikoa, dirlaguntzen plan estrategiko bat, urte desberdinetarako iraunaldia zeukana, eta aldaketa bat egin behar izan dugu, oinarrituta dagoena kreditu aldaketan onartu ziren hainbat dirulaguntzen inguruan.

Honela esan dezakegu ezohiko dirulaguntza batzuk direla eta ez direla urtetik urtera errepikakorrak, baina plangintza honetan jaso behar izaten da, bestela kontu-hartzaile txostenetan eta urte amaierako kontuetan azaltzen da nolabaiteko anomalia bat bezala, eta hori ekidite aldera zuzendu egin dugu edo aldatu egin dugu plangintza hori ezohiko diru laguntza hauek jasotzeko. Eta zeintzuk dira dirulaguntza horiek? Kiroletan Pilota Eskolari materiala erosteko 13.000 euroko partida onartu zen, Axeri elkarteari garbiketa makina bat erosteko 4.120 eurokoa, Hs2 klubarentzako 3.000 eurokoa bote bat erosteko, Hondarribia Eskubaloi taldeari 1.500 euroko ekarpen bat egitea kamera bat erosteko, Gizarte-Zerbitzuetan San Gabriel egoitzako obrak finantzatzeko 150.000 euroko dirulaguntza jaso zen, euskara sailean euskarazko komunikabide batentzako15.000 eurokoa, eta bestalde beste aldaketa txiki batzuk egin dira, kontuan hartzekoak bereziki, baina aipatu nahi nituzte baita ere: kultura eta merkataritzari

**3.-DAR CUENTA DEL DECRETO DE APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA PARA LOS EJERCICIOS 2024-2026.**

Se da cuenta del Decreto 2024/2695 de 4 de octubre de 2024, relativo a la aprobación de la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Hondarribia para los ejercicios 2024-2026.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Muy bien, pasaremos al tercer punto, si os parece bien, el cual trata de informar sobre el decreto de aprobación de la modificación del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Hondarribia para los ejercicios 2024 y 2026, es decir, se trata de una nueva comunicación. Recordaréis que aprobamos el Plan Estratégico, un Plan Estratégico de Subvenciones, con vigencia para varios años, y hemos tenido que realizar una modificación basada en una serie de subvenciones aprobadas en la modificación de crédito.

Así podemos decir que se trata de unas subvenciones extraordinarias que no son repetitivas año tras año, pero que hay que incluirlas en esta planificación, ya que de lo contrario aparecen en los informes de Intervención y en las cuentas de fin de año como una anomalía, y para evitarlo hemos corregido o modificado dicha planificación para poder optar a estas subvenciones extraordinarias. ¿Y cuáles son esas subvenciones? Se aprobó en Deportes una partida de 13.000 euros para la adquisición de material para Pilota Eskola, 4.120 euros para la adquisición de una máquina de limpieza para la Asociación Axeri, 3.000 euros para la adquisición de un bote para el club Hs2, una aportación al grupo Hondarribia Eskubaloi Taldea de 1.500 euros para la adquisición de una cámara, en Servicios Sociales se obtuvo una subvención de 150.000 euros para la financiación de las obras de la Residencia San Gabriel, en el Departamento de Euskera 15.000 euros para un medio de comunicación en euskera, y se han

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

dagokionean 40.000 euro murriztu da ekimen ekintzaileak sustatzeko eta txikizkako merkataritza establezimenduak modernizatzera bideratu dira, hau da partida batetik bestera mugitu da diru ekarpena; 15.000 euro gehitu dira ere Ostalaritza Elkartearen ekimen berezi batzuk burutzeko; Gizarte Zerbitzuetan beste aldaketa bat ere Saharar Herria laguntzeko Jaima elkartearentzat 3.000 euro gehitu dira udaran egon ziren saharauiei laguntzeko, aurrez aurreikusitakoak baino gehiago etorri zirenez, diru partida handitzea erabaki dena kreditu aldaketan; eta euskara sailari dagokionean euskaltegiko bekak ataletik 15.000 euro ezabatu dira kontu kontable batetik beste kontu kontable batean jasota zeudelako aurretik eta bikoiztuta zegoelako kopuru hori.

realizado otras pequeñas modificaciones, especialmente a tener en cuenta, pero también quisiera mencionar que se ha reducido en 40.000 euros en lo referente a cultura y comercio para el fomento de iniciativas emprendedoras, y se ha destinado a la modernización de los establecimientos del comercio minorista, es decir, se ha movido de una partida a otra; se han incrementado 15.000 euros para llevar a cabo algunas iniciativas especiales de la Asociación de Hostelería; en los Servicios Sociales también se ha realizado una modificación para la asociación Jaima, el pueblo saharaui, se han incrementado 3.000 euros para ayudar a las y los niños saharauis que vinieron en verano, ya que fueron más que los previstos, y en lo referente al Departamento de Euskera se han eliminado 15.000 euros de una cuenta contable porque estaban recogidos ya en otra cuenta contable, y por lo tanto dicha cantidad estaba duplicada.

Aldaketa guzti hauek Udalbatzak onartutako prozeduraren arabera egin dira, eta horregatik alkate dekretu honen berri ematea da Udalbatza honetan egiten duguna. Ez dakit argibide gehiagorik behar den?

Todas estas modificaciones se han realizado conforme al procedimiento aprobado por el Pleno, por lo que se procede a dar cuenta de este Decreto de Alcaldía en este Pleno. ¿No sé si se necesita más información?

**KONTUEN BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN Y ESPECIAL DE CUENTAS**

**4.-KOBRATZEKE DAUDEN SALDOEN ARAZKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

**4.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE DEPURACIÓN DE SALDOS PENDIENTES DE COBRO.**

Kobratzeke dauden saldoen arazketa onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Visto el expediente relativo a la propuesta de aprobación de depuración de saldos pendientes de cobro.

Alaitz Zabala Zarauz andrea bilkuran 18:14an sartu da, 4. puntuaren eztabaidan.

Dª Alaitz Zabala Zarauz se ha incorporado a la sesión a las 18:14, durante el debate del punto 4º.

2024ko urriaren 10eko Kontuen Batzorde Bereziaren diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión y Especial de Cuentas de 10 de octubre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 9, Abotsanitz (7) eta EH Bildu (2).
Aurkako botoak: 0.
Abstentzioak: 6, EAJ-PNV (5) eta PSE-EE-PSOE (1).

Votos a favor: 9, Abotsanitz (7) y EH Bildu (2).
Votos en contra: 0.
Abstenciones: 6, EAJ-PNV (5) y PSE-EE-PSOE (1).

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aldeko legezko gehiengoz osoz, hauxe **ERABAKI DU:** 177.236,78 euroko zenbatekoan kobratzeke dauden saldoak arazteko espedientea onestea, udal-bilketan eta -kontabilitatean baja emateko.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:**Eskerrik asko, argituta, eta pasatuko gara, beraz, laugarren puntura; eta laugarren puntua kobratzeke dauden saldoen arazketa onartzeko proposamena da. Eta bueno, hau abiatzen da Hondarribiko diruzainaren txosten bat jaso nuelarik urriaren hasieran, eta bertan adierazten zen Udalean dauden kobratzeko eskubide batzuk preskribitutzat jo daitezkeela, eta alkateari dagokiola eskubide publikoak preskribatzeko espedientearen hasiera adieraztea. Hori horrela, abiatu genuen espediente hori, eta eskubide horiek preskribatutzat jotzearen helburua zein da? Bada, udal aurrekontuak, kontabilitate orokorra, eta diru-bilketa udalaren errealitate ekonomiko finantzarioan eta aurrekontu errealitatearen irudi fidela ematean datza.

Kontutan izanda preskripzio hauek itxita dauden ekitaldietako kontu orokorrei eragiten dietela, hau da, normalean lau urtetik haratagokoak izaten direlako, Udalbatzari dagokio onarpena egitea, Kontuen Auzitegiak aditzera eman izan duen bezala. Kontu orokorrak Udalbatzak onartzen ditu eta kontu orokorrari eragiten dieten aldaketa horiek ere Udalbatzak onartu egin behar ditu.

Hori, prozedura aldetik eman beharreko azalpenak emanda; bai esan nahi dut zergei dagokienean ia 127.000 euro preskribitutzat ematen direla, eta isunei dagokienean, aldiz, 50.000 euro pasatxo preskribitutzat ematen direla. Dokumentazioan badituzue atal bakoitzeko xehetasun guztiak, orri asko dira, baina xehetasun guztiak bertan jasota dituzue, eta hori kontutan hartuta, orokorrean guztira 177.237 euroko eskubideak preskribitutzat jotzea proposatzen da. Ez dakit galderarik, azalpenik, xehetasun gehiagorik behar den?

Gonzalo, zurea da hitza.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal favorable **ACUERDA:** aprobar el expediente de depuración de saldos pendientes de cobro por un importe de 177.236,78 euros para darlos de baja en la recaudación y contabilidad municipal.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias, se da por aclarado, y pasamos al punto cuarto, que es la propuesta de aprobación de la depuración de los saldos pendientes de cobro. Y bueno, se inicia con la recepción a principios de octubre de un informe de la tesorera de Hondarribia en el que se indicaba que algunos de los derechos de cobro existentes en el Ayuntamiento pueden ser declarados prescritos, correspondiendo al Alcalde la declaración de inicio del expediente de prescripción de derechos públicos. Por ello, iniciamos dicho expediente y…¿cuál es el objetivo de la declaración de la prescripción de estos derechos? reflejar los presupuestos municipales, la contabilidad general y la recaudación en la realidad económico-financiera del Ayuntamiento y la imagen fiel de la realidad presupuestaria.

Teniendo en cuenta que estas prescripciones afectan a las cuentas generales de ejercicios cerrados, es decir, normalmente con una antigüedad superior a cuatro años, la aprobación corresponde al Pleno, tal y como ha puesto de manifiesto el Tribunal de Cuentas. Las cuentas generales son aprobadas por el Pleno y las modificaciones que afecten a la cuenta general también deben ser aprobadas por el Pleno.

Esas son las explicaciones desde el punto de vista procedimental; quiero decir que en lo que se refiere a los impuestos se consideran prescritos casi 127.000 euros, mientras que en lo que se refiere a las multas se consideran prescritos algo más de 50.000 euros. Teniendo en cuenta que la documentación con todos los detalles de cada apartado contiene un gran número de páginas, se propone la prescripción global de los derechos por importe de 177.237 euros. ¿No sé si hay preguntas, si se necesitan explicaciones, más detalles?

Gonzalo, te cedo la palabra.



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

**CARRION JAUNA:** Bai, arratsalde on denei. Urteetan, Abotsanitz oposizioan zegoenean eta gu Gobernuan, entzun behar izan dugu ez zinetela ados prozedura honekin, eta beti kontra bozkatu duzue. Ez zineten ados prozedurarekin, eta ahal zen guztia egiten ez zela esaten zenuten. Gaur prozedura berdin-berdinak eskatzen dituzue bozketan, eta normaltasun guztiarekin gainera. Orain arte horrelakorik esan ez bazenute bezala. Guk esan nahi dugun bakarra da badakigula hau prozedura administratiboa dela, baina horrela da gaur eta baita ere zuek Oposizioan egon zineten urte guztietan ere. Guk gaur ez dugu kontra bozkatuko, abstenitu egingo gara.

**ALKATE JAUNA:** Bueno, esan beharra daukat, bai, ez dela erosoa eta samurra proposamen hau ekartzea Udalbatzara, niri ez zait gustatzen kobratzeke dauden prozedurak kobratu gabe geratzea, eta horretan aipatu beharra daukat saiakera berezi bat egiten ari garela Hondarribiko Udalean dagozkien tramitazio guzti-guztiak bukaeraraino eramaten, eta esan beharra daukat ere saiakera horretan teknikari asko lanean ari direla, eta nolabaiteko hobekuntza ere jasotzen ari dela prozedura hau.

Horrek ez du esan nahi ehuneko ehunean sortzen diren eskubideak kobratzea posible izaten denik, bai aldiz, esango dut, % 98 eta pikoko kobratze tasa batean bagaudela, eta kobratzen ez diren horiek oso portzentaia txikia direla Hondarribiko Udalean.

Badaude batzuk, nik aipatu izan dut behin baino gehiagotan, adibidez, ondasun higiezinen gaineko…ez dakit den 18.000 edo 28.000 euroko likidazio bat urtero-urtero aipatzen… errepikatzen dena, eta saiakera berezia egin dugu hori behin betikoz jada argituta zuzentzeko, baina gertatzen dena da katastroan dagoen jabekidea Madrilgo enpresa bat dena eta orube bat eraiki gabekoa izan zela 70. hamarkadan, eta adibidez hori lokalizatzea eta topatzea ia ezinezkoa egiten ari zaiola Hondarribiko Udalari, eta lanketa batean ere badaudela katastroaren bitartez argitzeko ea norena den lur eremu hori, eta ia nori egin behar diogun zerga horren erantzule, eta saiatzen ari garela kobratzeke baldin badago kobratzea, eta bestela ezabatzea, eta hori da pixkat kudeaketa aldetik egiten ari garena orokorrean.

**EL SR CARRION:** Sí, buenas tardes a todas y todos. Durante años, cuando Abotsanitz estaba en la oposición y nosotros en el Gobierno, hemos tenido que escuchar que no estabais de acuerdo con este procedimiento, y siempre habéis votado en contra. No estabais de acuerdo con el procedimiento y decíais que no se hacía todo lo posible. Hoy solicitáis procedimientos idénticos en la votación, y con toda normalidad. Como si hasta ahora no hubierais dicho lo contrario. Lo único que queremos decir es que sabemos que este es un procedimiento administrativo, pero es así hoy y también todos los años que vosotros habéis estado en la Oposición. Nosotros hoy no votaremos en contra, nos abstendremos.

**EL SR ALCALDE:** Bueno, he de decir que no es cómodo y fácil traer esta propuesta al Pleno, a mí no me gusta que los procedimientos pendientes de cobro queden sin cobrar, y en eso tengo que mencionar que estamos haciendo un esfuerzo especial en el Ayuntamiento de Hondarribia por llevar todas y cada una de las tramitaciones que les corresponden hasta su conclusión, y que en ese intento están trabajando muchas y muchos técnicos, y que este procedimiento está teniendo también una cierta mejora.

Esto no quiere decir que se puedan cobrar los derechos que se generan al cien por cien, pero sí diré que estamos en una tasa de cobro del 98% y pico, y que los que no se cobran son un porcentaje muy pequeño en el Ayuntamiento de Hondarribia.

Hay algunos, yo lo he mencionado en más de una ocasión, por ejemplo, que se repiten: una liquidación anual de bienes inmuebles... que no sé si es una liquidación de 18.000 o 28.000 euros... y se ha intentado corregirla y aclararla definitivamente, pero lo que sucede es que el copropietario catastral fue una empresa de Madrid y es un solar no construido en la década de los 70, y que por ejemplo su localización le está siéndole prácticamente imposible al Ayuntamiento de Hondarribia, y que se está tratando también de aclarar a través del catastro a quién pertenece el terreno, y a quién debemos hacernos responsable de ese impuesto, y que estamos intentando cobrar, si está pendiente de cobro, y en caso contrario eliminarlo, y eso es lo que estamos haciendo en general desde el punto de vista de la gestión.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Isunen kasuan ere aipatu dut 50.000 euro inguruko ez-kobratzeak badaudela, isunen prozeduretan ere ezarri ditugu hobekuntzak kopuru horiek murriztu eta ahal diren guztiak kobratzeko nahian, baina hauek duela lau urteko preskribitutako kontuak dira, eta Gonzalo, zuk behin esan zenidan lehengoak utzi eta aurrera begiratzeko, eta behin eta berriro jasotzen dut lehengoarekiko begirada zure aldetik, eta orduan igual neurtu beharko genuke, bada…ea begiratzen dugun lehengora, edo begiratzen dugun aurrera, baina aurrera begirakoan bagaude gu, behintzat, eta neurriak ezartzen ari gara gustatzen ez zaigun hori zuzendu ahal izateko. Ondo baderitzozue, beraz, bozketara pasako gara.

Aldeko bozkak? Kontrakoak? Abstentzioak?
Gehiengoz onartua.

En el caso de las multas también he comentado que hay incobros de unos 50.000 euros; hemos implantado mejoras en los procedimientos de las multas con el fin de reducir esas cantidades y cobrar todas las posibles, pero estos son casos prescritos hace cuatro años y Gonzalo, tú en una ocasión me dijiste que dejáramos a un lado lo pasado y que miráramos adelante, pero insistentemente me remites una mirada al pasado, y entonces deberíamos ver si…miramos al pasado o miramos para adelante, pero en nuestro caso al menos miramos al futuro, y estamos estableciendo medidas para poder corregir aquello que no nos gusta. Si os parece bien, procederemos a votar.

¿Votos a favor? ¿En contra? ¿Abstenciones?
Aprobado por mayoría.

**5.-ONDORENGO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO PROPOSAMENA:**

***ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUENA.**

***TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUENA.**

***HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.**

***JABARI PUBLIKOAREN ERABILPEN PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.**

***ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.**

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzeari dagokion espedientea aztertu ondoren:

*Ondasun Higiezinen Gaineko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak arautzen dituena.

**5.-PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LAS SIGUIENTES ORDENANZAS FISCALES:**

***REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.**

***REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.**

***REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA.**

***REGULADORA DE TASAS POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO.**

***REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.**

Examinado el expediente relativo a la modificación de las siguientes ordenanzas fiscales:

*Reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre bienes

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

inmuebles.

*Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak arautzen dituena.

*Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.

*Jabari publikoaren erabilpen pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren gaineko tasak arautzen dituena.

*Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.

PSE-EE-PSOE udal taldeak aurkezturiko idatzia ikusi ondoren, 2024ko urriaren 15eko 11488SE zenb.koa

2024ko urriaren 17ko Kontuen Batzorde Bereziaren diktamena ikusi ondoren**.**

PSE-EE-PSOE udal taldearen idatzian jasotako honako onarpen proposamenak bakarrik bozkatu dira, 2024ko urriaren 15eko 11488SE zenb.koak, ondasun higiezinen gaineko zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituzten ordenantza fiskalen proposamenari dagozkionak:

*"(...)*
*Hobariak:*

*1.Zergaren kuota osoaren 100eko 50era arteko hobaria, eraiki berri diren babes publikoko etxebizitzei eta horiei lotutako garaje eta trastelekuei, proiektuan eta erregistroan, behin betiko kalifikazioa 3 urtez eman ondoren, udal ordenantzetan jaso behar da.*

*(...)*
*Salbuespenak:*
*1.5.3 artikulua bi urtera luzatzea, beharrezko izapideak egiteko orduan egon daitezkeen konplikazioengatik.*
*(...)".*

*Reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.

*Reguladora del impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.

*Reguladora de tasas por utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público.

*Reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

Visto el escrito presentado por el grupo municipal PSE-EE-PSOE, RE nº 11488 de 15 de octubre de 2024.

Visto el dictamen de la Comisión y Especial de Cuentas de 17 de octubre de 2024.

Sometida a votación la aprobación únicamente de las siguientes propuestas recogidas en el escrito presentado por el grupo municipal PSE-EE-PSOE, RE nº 11488 de 15 de octubre de 2024, correspondientes a la propuesta de las ordenanzas fiscales reguladoras de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre bienes inmuebles:

*"(...)*
*Bonificaciones:*

*1.Una bonificación de hasta el 50 por 100 de la cuota íntegra del impuesto a las viviendas de protección pública de nueva construcción, así como a los garajes y trasteros vinculados a las mismas, en proyecto y registralmente, una vez qu ese otorgue la calificación definitiva durante 3 años. Debe recogerse en las ordenanzas municipales.*

*(...)*
*Exenciones:*
*1.Ampliar el art. 5.3 a dos años, por las posibles complicaciones a la hora de hacer los trámites necesarios*
*(...)".*

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:** onartzea PSE-EE-PSOE udal taldearen idatzian jasotako honako proposamenak bakarrik, 2024ko urriaren 15eko 11488SE zenb.koak, ondasun higiezinen gaineko zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituzten ordenantza fiskalen proposamenari dagozkionak:

*“(...)*
*Hobariak:*

*1.Zergaren kuota osoaren 100eko 50era arteko hobaria, eraiki berri diren babes publikoko etxebizitzei eta horiei lotutako garaje eta trastelekuei, proiektuan eta erregistroan, behin betiko kalifikazioa 3 urtez eman ondoren, udal ordenantzetan jaso behar da.*

*(...)*
*Salbuespenak:*
*1.5.3 artikulua bi urtera luzatzea, beharrezko izapideak egiteko orduan egon daitezkeen konplikazioengatik.*
*(...)”.*

Idatziaren gainerako testua onartzeko proposamena bozkatu da, *"Hobariak, 1. puntua"* eta *"Salbuespenak, 1. puntua"* idatz-zatirik gabekoa, PSE-EE-PSOE udal taldeak aurkeztutako 2024ko urriaren 15eko 11488SE zenb.ari dagokiona. Bozketaren emaitza hauxe izan da:

Aldeko botoak: 6, EAJ-PNV (5) eta PSE-EE-PSOE (1).
Aurkako botoak: 9, Abotsanitz (7) eta EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aldeko legezko gehiengo osoz, hauxe **ERABAKI DU:** ezestea idatziaren gainerako testua onartzeko proposamena, *"Hobariak, 1. puntua"* eta *"Salbuespenak, 1. puntua"* idatz-zatirik gabekoa, PSE-EE-PSOE udal

El resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:** aprobar únicamente las siguientes propuestas recogidas en el escrito presentado por el grupo municipal PSE-EE-PSOE, RE nº 11488 de 15 de octubre de 2024, correspondientes a la propuesta de las ordenanzas fiscales reguladoras de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre bienes inmuebles:

*“(...)*
*Bonificaciones:*

*1.Una bonificación de hasta el 50 por 100 de la cuota íntegra del impuesto a las viviendas de protección pública de nueva construcción, así como a los garajes y trasteros vinculados a las mismas, en proyecto y registralmente, una vez qu ese otorgue la calificación definitiva durante 3 años. Debe recogerse en las ordenanzas municipales.*

*(...)*
*Exenciones:*
*1.Ampliar el art. 5.3 a dos años, por las posibles complicaciones a la hora de hacer los trámites necesarios*
*(...)”.*

Sometida a votación la propuesta de aprobación del texto restante del escrito–sin los apartados *“Bonificaciones, punto 1º” y “Exenciones, punto 1º”*–presentado por el grupo municipal PSE-EE-PSOE, RE nº 11488 de 15 de octubre de 2024, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 6, EAJ-PNV (5) y PSE-EE-PSOE (1).
Votos en contra: 9, Abotsanitz (7) y EH Bildu (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal, **ACUERDA:** desestimar la propuesta de aprobación del texto restante del escrito–sin los apartados *“Bonificaciones, punto 1º” y “Exenciones, punto 1º”*–presentado por el

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

taldeak aurkeztutako 2024ko urriaren 15eko 11488SE zenb.ari dagokiona.

grupo municipal PSE-EE-PSOE, RE nº 11488 de 15 de octubre de 2024.

2024ko urriaren 17ko Kontuen Batzorde Bereziaren irizpena bozkatu da. Irizpenaren bozkari PSE-EE-PSOE udal-taldearen 2024ko urriaren 15eko 11488SE zenb.ko idatziaren *"Hobariak, 1. puntua"* eta *"Salbuespenak, 1. puntua*" ataletan jasotako proposamenak erantsi zaizkio. Proposamen horiek ondasun higiezinen gaineko zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituzten ordenantza fiskalen proposamenari dagozkio. Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Sometido a votación el dictamen de la Comisión y Especial de Cuentas de 17 de octubre de 2024, junto con las propuestas recogidas en los apartados *"Bonificaciones, punto 1º" y "Exenciones, punto 1º"* del escrito RE nº 11488 de 15 de octubre de 2024 del grupo municipal PSE-EE-PSOE, correspondientes a la propuesta de las ordenanzas fiscales reguladoras de los elementos esenciales para determinar las cuotas del impuesto sobre bienes inmuebles, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 9, Abotsanitz (7) eta EH Bildu (2).
Aurkako botoak: 6, EAJ-PNV (5) eta PSE-EE-PSOE (1).

Votos a favor: 9, Abotsanitz (7) y EH Bildu (2).
Votos en contra: 6, EAJ-PNV (5) y PSE-EE-PSOE (1).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aldeko legezko gehiengo osoz, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-**Udalbatzak behin-behineko izaerarekin onartzea 2025. urterako Hondarribiko Udalaren ordenantza fiskalen aldaketak, egindako proposamenen eta espedientean jasota dauden eta baldintzen arabera:

**PRIMERO.-**Aprobar provisionalmente por el Pleno las modificaciones de las ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Hondarribia para el año 2025, según las propuestas y en los términos que figuran en la documentación que obra en los expedientes:

2024MORF0002 Ondasun higiezinen gaineko zerga.

2024MORF0002 Impuesto s/bienes inmuebles.

2024MORF0003 Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.

2024MORF0003 Impuesto s/incremento valor de los terrenos.

2024MORF0004 Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga.

2024MORF0004- Impuesto s/vehículos de tracción mecánica.

2024MORF0006 Jabari publikoaren erabilpen pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren gaineko tasak.

2024MORF0006 Tasas por utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público.

2024MORF0007 Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak.

2024MORF0007 Tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

**BIGARREN.-**Erakundearen iragarki oholean hogeita hamar egunez azaltzea. Horien barruan interesatuek espedientea aztertu ahal izango dute eta egokiak ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

**SEGUNDO.-**Exponer en el tablón de anuncios de la entidad durante treinta días, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

**HIRUGARREN.-**Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handienetakoa duen egunkari batean argitaratzea.

**TERCERO.-**Publicar el anuncio de exposición en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en un diario de los de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**LAUGARREN.-**Behin betiko akordioa hartzea, informazio publikoko epea bukatuta, eta aurkeztu diren erreklamazioak ebaztea eta ordenantzaren behin betiko idazketa onartzea, baliogabetzea, edo behin-behineko akordioaren gaia diren aldaketak onestea. Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu, ulertuko da behin betiko onartu dela ordu arte behin-behineko zen akordioa, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan oinarrituta.

**CUARTO.-**Adoptar el acuerdo definitivo, una vez finalizado el periodo de información pública, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción definitiva de la ordenanza, su derogación o las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional. En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional en base al artículo 16 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, Reguladora de la Haciendas Locales de Gipuzkoa.

**BOSGARREN.-**Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko akordioak argitaratzea, sartuta kategoria horretara automatikoki igotako behin-behinekoak zirenak, baita ordenantzen testu osoa eta haien aldaketak; ez dira indarren sartuko argitaratzen ez diren arte.

**QUINTO.-**Publicar los acuerdos definitivos, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto íntegro de las ordenanzas o sus modificaciones en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.

**SEIGARREN.-**Alkatetzari eskumena ematea gai honi lotutako agiriak sinatzeko.

**SEXTO.-**Facultar a la Alcaldía para suscribir los documentos relacionados con este asunto.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Eta bosgarren puntuan ondorengo ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena dakarkigu: Alde batetik…bueno, hasi nahiko nuke bosgarren puntu honetan prozedura aldetik… bueno, gai-zerrendan jasota zegoenarekiko… bada… jaso dugula idatzi bitartez erregistroz proposamen bat, eta proposamen hori emendakin gisa jasoko dugu, gaur hemen bozkatua izatea nahi zuela aipatu zuen Alderdi Sozialistako ordezkariak, eta idazkari jauna, ez baldin banago oker, emendakin gisa da modua gaurko Udalbatzan eztabaidatu eta bozkatzeko.

**EL SR ALCALDE:** Y en el quinto punto se propone la modificación de las siguientes ordenanzas fiscales: Por un lado... bueno, me gustaría empezar en este quinto punto por el procedimiento... bueno, respecto a lo que estaba previsto en el orden del día... pues... que hemos recibido por escrito una propuesta por registro, propuesta que recogemos como enmienda, porque el representante del Partido Socialista mencionó que hoy quería que se votara aquí, y sr. secretario, si no estoy equivocado presentarlo como enmienda es el modo de debatir y votar en el Pleno de hoy.

Beraz, ongi baderitzozue PSE-EEk erregistratutako 11.488 sarrera idatzia duen proposamena emendakin bezala jasoko dugu, eta aurkeztu eta gero bozkatzeko proposamena egingo dugu.

Por lo tanto, si os parece bien, recogeremos como enmienda la propuesta con registro de entrada 11.488 presentada por el PSE-EE y haremos una propuesta de votación tras su presentación.

Beraz, alde batetik egingo dugu Gobernu Taldetik ekarritako proposamenaren azalpen bat, ondoren

Así, por un lado haremos una exposición de la propuesta realizada por el Equipo de Gobierno,



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

PSE-EEk emendakin hori aurkeztuko du, bozkatuko dugu emendakina, aldaketarik baldin badago jasoko da Gobernu Taldeko proposamenean, ondoren egingo dugu udal talde bakoitzak gure balorazioa, eta bozkatuko dugu azkeneko proposamen hori. Ongi iruditzen zaizue?

después el PSE-EE presentará dicha enmienda, votaremos la enmienda, si hay modificaciones se recogerán en la propuesta del Equipo de Gobierno, a continuación cada grupo municipal haremos nuestra valoración y votaremos esta última propuesta. ¿Os parece bien?

Beraz, ordenantza fiskalei dagokienean aldatzeko proposatzen direnak Ondasun Higiezinen Gaineko Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak arautzen dituen atala dago, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak arautzen dituena, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zerga arautzen duena, Jabari Publikoaren Erabilera Pribatibo edo Aprobetxamendu Berezien Gaineko Tasa arautzen dituena, eta Zerbitzu Publikoak Eskaini eta Jarduera Administratiboak Egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen proposamenak ditugu mahai gainean.

Pero luego hay otros incrementos en los impuestos, del 3,5. Pues bien, nos gustaría... en lugar de presentarlo así… esa falta de transparencia nos ha cogido un poco por sorpresa. Y tanto Abotsanitz como EH Bildu proponen una subida generalizada de las tasas del 3,5 de la modificación de la ordenanza fiscal. Desde el 2011 las tasas se habían mantenido congeladas en Hondarribia hasta ahora, y es que el gobierno de Abotsanitz y EH Bildu propone aprobar una subida de tasas generalizada del 3,5% para la ciudadanía hondarribitarra. No podemos entender ni aprobar esta subida, principalmente porque estamos viendo la ejecución presupuestaria para este año es difícil que llegue 100%, es decir el ayuntamiento va a gastar todo lo que recauda, y además propone una subida porcentual mayor que la subida del IPC. Entendemos que esta decisión se debe a la necesidad de obtener más ingresos que puedan hacer frente a las decisiones que está tomando este Gobierno en relación a la contratación de nuevos servicios. Hemos echado en falta en todo este proceso unas explicaciones a la ciudadanía y a los partidos políticos, para entender el motivo de esta subida de tasas. Por todos estos motivos el grupo

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

municipal EAJ-PNV votará en contra de la modificación de la ordenanza fiscal.

Eta ikusirik zalantza sortu duena aipatu dizuedan lau ordu horiena, gustatuko litzaidake…a ver…gero beste batean egongo zen aukera hori aldatzea edo aklarazio txiki bat. Eskerrik asko.

Y viendo el tema de las cuatro horas que ha suscitado la duda, el que os he mencionado, me gustaría que… a ver…se cambiara esa decisión, o se realizara una pequeña aclaración, Muchas gracias.

**ALKATE JAUNA:** Bai, beste taldeei hitz eman aurretik aklarazio hau egingo dut, ongi iruditzen bazaizue, behintzat. Lehen aipatu dugu Ordenantza Fiskaletan egiten diren aldaketak jaso direla, bai herritarren proposamenetatik, bai teknikarien proposamenetatik, eta baita Udal Taldeen proposamenetatik ere. Eta aipatu dut teknikariek egindako lanketa itzela izan dela, eta OTAren eremuan denbora mugatzea lau ordura, hori teknikarien txostenean irakurri ahal izan baduzu, egiten diren azterketa ekonomikoetan eta teknikari txosten batean oinarritutako aldaketa da eta teknikariak egindako aldaketa proposamena da jaso dena. Hor duzu dokumentazioan, Ordenantza Fiskalak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuak Bide Publikoetan Aparkatzeagatik ordaindu beharreko tasak txosten tekniko finantzarioa, eta hor jasotzen da baita ere lehenengo orrian Portuan eremu urdinean sei minututik lau ordura arteko epemuga jasotzen dela; hori ez da izan ekarpen politiko bat, baizik ekarpen tekniko bat izan da, eta ekarpen tekniko bezala egin diren proposamen guztiak ontzat eman ditugu eta horrela jaso da.

**EL SR ALCALDE:** Sí, antes de dirigirme a los otros grupos realizaré esta aclaración, si os parece bien. Ya hemos mencionado anteriormente que se han recogido las modificaciones que se realizan en las Ordenanzas Fiscales, tanto de las propuestas ciudadanas como de las y los técnicos, así como las propuestas de los Grupos Municipales. Y he mencionado que el trabajo realizado por el personal técnico ha sido tremendo, y limitar el tiempo en el ámbito de la OTA a cuatro horas, si has podido leerlo en el informe técnico, es un cambio basado en los estudios económicos que se han realizado y en un informe técnico, y lo que está recogido es la propuesta de modificación realizada por la/el técnico. Ahí tienes la documentación, el informe técnico financiero de las tasas por Estacionamiento de Vehículos de Tracción Mecánica en Vías Públicas que la Ordenanza Fiscal, en la que se recoge en la primera página que en Portua auzoa el tiempo de estacionamiento en la zona azul va de seis minutos a cuatro horas; esa no ha sido una aportación política, sino técnica, y como tal hemos dado por buenas todas las propuestas y se ha hecho constar.

**CARRION JAUNA:** Ahal dizut erantzun honi edo utzi behar dut gerora?

**EL SR CARRIÓN:** ¿Te puedo responder en este momento o debo esperar?

**ALKATE JAUNA:** Nik uste dut argipen bat eskatu dela eta eman dut argipen bat. Uste dut gaudela talde balorazioak egiterako garaian eta igual begi onez ikusiko nuke udal talde bakoitzak egindako edo jasotako proposamenaren balorazioa egiteko aukera izatea. Bai? Alderdi Sozialistaren izenean? Iosu?

**EL SR ALCALDE:** Yo creo que se ha pedido una aclaración y que la he dado. Creo que estamos en el momento de hacer las valoraciones de los grupos, e igual me parecería adecuado que cada grupo municipal haga una valoración de la propuesta realizada o recogida. ¿Sí? ¿En nombre del Partido Socialista? ¿Iosu?

**EL SR ALVAREZ:** Ezer baino lehen esan behar dut argi dagoela zergak funtsezkoak direla, hirietan politika birbanatzaileak ezartzeko, eta hori ez dut zalantzan jartzen. Dena dela ere, Nolanahi ere, hemen, nola edo hala zure balorazioa egin duzunean, esan duzu saiatu zarela... araudi sakon

**ALVAREZ JAUNA:** Vaya por delante que evidentemente los impuestos… pues… evidentemente en una ciudad son fundamentales para establecer políticas redistributivas, y eso es algo que no puedo cuestionar. En todo caso, aquí cuando de alguna forma has hecho tu valoración,



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

honekin saiakera egin dela..., beno, bai IPREMen bai SMIen kontzeptuak birdoitu dira, etxez etxeko laguntzen gaiari buruz, aldaketa garrantzitsuak izan dira zenbait kapitulutan, irakurri duzunaren arabera, eta dekretuen gaiari buruz ere hitz egin duzu, eta, funtsezkoa ez bada, aldaketa bat egiteko aukera dekretu bidez egin daitekeela gai batzuetan. Eta, nola ez, helburuak ere planteatu dituzu, baina helburuak zertarako? Zuk dirua biltzen baduzu, gauza batzuetarako da, zertarako?

has hablado de que, bueno… que se ha intentado…que se intenta hacer con esta normativa profunda…en el cual, bueno, se han reajustado conceptos tanto del IPREM como del ISM, sobre el tema de las ayudas domiciliarias, que ha habido cambios importantes en varios capítulos, tal y como de alguna forma has hecho la lectura, y que incluso también hablabas del tema de los decretos, la posibilidad de conceder una modificación si no sustancial se puede hacer vía decreto en algunas cuestiones. Y de alguna forma has planteado también, evidentemente, los objetivos, los objetivos, ¿para qué? Tú recaudas dinero, es para unas cosas, ¿para qué?

Nik gai horiek ez ditut fokuan jartzen; izan ere, 48 ordutan, ulertuko duzunez, ezin dut irakurri. Eta ezin dut antzeman gai honen sakoneko irakurketa azkar hori. Ez printzipioaren gaiari dagokionez, ez planteamenduen gaiari dagokionez. Planteamenduak nik neuk egin ditut... azken batean, etengabe esan ohi ditut, eta horrela horietako batzuk partekatu ahal izango ditut.

Yo esas cuestiones no las pongo en el candelero, en todo caso, pues en 48 horas, como comprenderás, no lo puedo leer. Y no puedo apreciar esa lectura rápida que de alguna forma tiene de fondo este tema. Ni en cuanto al tema del principio, ni en cuanto al tema de los planteamientos. Los planteamientos yo ya los he…en fin, los suelo decir permanentemente, lo cual poder compartir algunos de ellos.

Hori esanda, forma ere garrantzitsua da. Funtsa ez ezik, forma ere garrantzitsua da. Eta nik uste dut kasu honetan itzelez huts egin dela forman. Bai... tira, nik nolabaiteko irakurketa pragmatikoa egingo dut, hau da: ordenantza fiskalen aldaketa galdutako aukera bat da. Gobernu Taldearen gardentasunik ezak zerga-ordenantzen aldaketa egiteko aukera zapuzten du. 2024ko apirilaren 18an, Ogasun Batzordea bildu zen, 2025eko ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzeari ekiteko. Bilera horretan, alderdiek beren proposamenak entregatzeko data bat ezarri nahi izan zen. Talde sozialistak Gobernu Taldeak bere proposamena ekarriko zuen galdetu zuen. Gure ustez, normalena zen Abotsanitz-Bildu koalizioaren aldaketa-proposamena aurkeztea, eta, behin proposamen hori ezagututa, gainerako indar politikoek proposamen desberdinak egitea, kasu honetan.

Dicho esto, también es importante la forma. No solo es fondo es importante, también la forma. Y yo creo que en este caso se ha fallado estrepitosamente en la forma. Sí…bueno, yo voy a hacer una especie de lectura, pragmática, que es la siguiente: La modificación de las ordenanzas fiscales es una oportunidad perdida. La falta de transparencia del Equipo de Gobierno frustra la posibilidad de llevar a cabo una modificación adecuada a las ordenanzas fiscales. El 18 de abril del 2024 tuvo lugar una reunión de la Comisión de Hacienda, con la finalidad de abordar la modificación de las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2025. En dicha reunión se trató de establecer una fecha para la entrega por parte de los diferentes partidos de sus propuestas. Desde el grupo socialista se preguntó si el Equipo de Gobierno iba a traer su propuesta. Entendíamos que lo más normal era que presente la propuesta de modificación por parte de la coalición Abotsanitz-Bildu, para una vez conocida la misma formular el resto de las fuerzas políticas las diferentes propuestas, en este caso.

Ekainaren hogeita zortzian, eta ekainaren 30eko data jarri zen. 2024ko ekainaren 28an, Abotsanitz

El veintiocho de …y se puso fecha el 30 de junio. El 28 de junio del 2024 el grupo Abotsanitz

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

taldeak proposamen bat aurkeztu zuen, hiru ardatzetan oinarritua: OHZren gaiari buruzko 12/1989 foru-arauen aldaketa, familia ugariei buruzko beste batzuk, eta trakzio mekanikoko ibilgailuei buruzko hirugarren bat. 2024ko urriaren 14an, talde sozialistak hainbat proposamen, hobari eta zerga-salbuespen aurkeztu zituen OHZri dagokionez: % 50eko hobaria babes publikoko etxebizitzetarako, % 100ekoa Eusko Jaurlaritzaren alokairu-jabetzetarako, % 50ekoa karga-puntuak eta dituzten pertsonentzat, eta salbuespenak, ohiko bizilekuak ez izan arren zerga sortu aurreko urtean egiaztatzen duten etxebizitzetarako, etab.

presentó una propuesta que se basaba en tres ejes: modificación de las normas forales 12/1989 del tema del IBI, otra sobre las familias numerosas, y una tercera sobre los vehículos de tracción mecánica. El 14 de octubre del 2024 el grupo socialista presentó una serie de propuestas, bonificaciones y exenciones fiscales, con respecto al IBI: bonificación del 50% del IBI para las viviendas de protección pública, el 100% para las propiedades del alquiler del Gobierno Vasco, el 50 para las personas que tengan puntos de recarga y exenciones, para aquellas viviendas que sin ser habituales acrediten el año anterior al devengo del impuesto, etc, etc.

Urriaren 15ean, Ogasun Batzordean, hau da, 17ko batzordea egin baino berrogeita zortzi ordu lehenago, gobernu-taldeak zenbait proposamen aurkeztu zituen, osoko bilkuran onar zitezen, kasu honetan osoko bilkura honetan. Proposamen horiek trakzio mekanikoko ibilgailuei, hiri-izaeraren balioa handitzeari, aprobetxamendu publikoari eta zerbitzu publikoak emateko tasen erregulazioei buruzkoak dira. Berriro ere, Gobernu Taldeak, alkatea buru duela, ez du emandako hitza betetzen; izan ere, apirilaren 30ekoa zen, ekainaren 30ekoa, zerga-sistema aldatzeko proposamenak aurkezteko azken eguna. Aitzitik, bilera baino 48 ordu lehenago proposamen sorta bat aurkeztea erabaki du, erabakiak hartzeko.

Con fecha 15 de octubre, en la Comisión de Hacienda, es decir cuarenta y ocho horas de antelación a la celebración de la comisión del 17, el Equipo de Gobierno presenta una serie de propuestas, que pretende que sean aprobadas en el Pleno, en este caso en este Pleno, y estas propuestas son sobre vehículos de tracción mecánica, incremento del valor naturaleza urbana, aprovechamiento público, regulaciones de tasas de prestación de servicios públicos. Nuevamente el Equipo de Gobierno, con el alcalde a la cabeza, no cumple la palabra dada, que era de fecha 30 de abril, del 30 de junio como fecha tope para presentar las propuestas para los cambios de la fiscalidad. Por el contrario, opta por presentar toda una batería de propuestas 48 horas antes de la reunión, y para la toma de decisiones.

Talde Sozialistak apirilean galdetu zuen ea Gobernu Taldeak bere ideiak aurkeztu zituen eta lan egiteko modu egokia iruditzen zitzaigun. Gobernu-taldeak ez du gure proposamenetako bat ere onartu – tira, oker nago, bi onartu dira –, ez hobariak, ez salbuespenak. Hau da, bi onartu dira. Aitzitik, zerga-ordenantzak aldatzeak presio fiskala nabarmen handitzea dakar. Gobernu Taldeak aurkeztu dituen zerga-aldaketek zerga-bilketaren presioa 3,5 inguru handitzea ekarri dute. Erreferentzia gisa 1,8ko iraileko KPI hartzen badugu, inflazioaren gainetik kokatuko ginateke argi eta garbi. Guk, jakina, ulertuko genuke, Udal honen egoera dela eta, KPIren igoera onar genezakeela. Nik, jakina, esaten dizut, kasu honetan.

El Grupo Socialista preguntó en el mes de abril si el Equipo de Gobierno tenía ideas presentadas sobre él, y nos parecía una buena forma de trabajar. El Equipo de Gobierno no ha aceptado ninguna de nuestras propuestas –bueno, en este caso, me equivoco, se han aceptado dos– ni las bonificaciones ni las exenciones. Es decir, que se han aceptado dos. Antes al contrario, la modificación de las Ordenanzas Fiscales supone un incremento sustancial de la presión fiscal. Las modificaciones fiscales que se presentan por parte del Equipo de Gobierno suponen un incremento de presión fiscal recaudatorio, que se sitúa en torno al 3,5. Si tomamos como referencia el IPC del mes de septiembre del 1,8, nos situaríamos claramente por encima de la inflación. Nosotros desde luego entenderíamos, que, dada la situación de este Ayuntamiento, podríamos aceptar una subida del



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

IPC. Yo desde luego, te lo digo, en este caso.

Hori dela eta, ez dugu ulertzen nola aplikatzen diren igoera handiagoak diruzaintza-maila handiak dituen udal batean, aurten ere diruzaintzako gerakin positibo bat izango dutela aurreikusten baita, kontuan izanda gainera horren finantza-aktiboek interes kopuru handia ekarriko diotela. Hau da, iaz milioi eta erdi inguru izan ziren, nire ustez, une honetan Udalean dugun kontuaren interesak. Oker ez banago..

Por este motivo, no entendemos cómo se aplican una subidas, máxime en un Ayuntamiento que sigue manteniendo los niveles de tesorería importantes, que este año previsiblemente volverán a tener un remanente de tesorería positivo, al que sus activos financieros le comportan una cantidad importante de intereses. Es decir, el año pasado supusieron entorno al millón y medio, me parece que fue, los intereses de la cuenta que tenemos en este momento en el Ayuntamiento. Si no me equivoco.

Gobernu Taldeak aurkeztutako proposamenen artean OHZren errekargua dago, 50 izatetik 75 izatera igarotzen dena ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzetarako. Gure ikuspuntutik, Foru Araua, une honetan aplikatzen ari den bezala, diru-bilketako neurri hutsa da. Ez du xede bat, baliabide horiek lurzorua erosteko erabiltzea eta Hondarribiko herritarrei alokairurako laguntzea ahalbidetuko lukeena, eta, kasu batzuetan, Gaztelagun programa osatzea ahalbidetuko lukeena, Hondarribian benetan egiten diren alokairuetara egokituta.

Dentro las propuestas presentadas por el Equipo de Gobierno, figura el recargo del IBI que pasa del 50 al 75 para las viviendas que no constituyan vivienda habitual. Desde nuestro punto de vista, la Norma Foral, tal y como se está aplicando en estos momentos, supone una medida simplemente recaudatoria. No tiene una función finalista, que permitiría destinar esos recursos para la compra de suelo, y la ayuda para los alquileres para los ciudadanos de Hondarribia, y en algunos casos completar el programa de Gaztelagun, adaptada a los alquileres que…en realidad en Hondarribia.

Gure ikuspegitik, beharrezkoa da diru-bilketako politika horren ordez beste bat jartzea, adibidez, 149/2021 Legea aplikatzea. Lege horretan, etxebizitza hutsak beste ikuspegi bermatzaileago batetik jasotzen dira, eta etxebizitza hutsei 10 euroko errekargua egingo zaie m2-ko. Diru hori udalerrian lurzorua erosteko erabiliko da. Horretarako, une honetan beharrezkoa den kudeaketa egin behar du Udalak, baina ez da gauzatu nahi.

Desde nuestro punto de vista es necesario sustituir, o ir sustituyendo esta política recaudatoria por otra, mediante por ejemplo la aplicación de la ley 149/2021, en la que contempla la vivienda vacía desde otra perspectiva más garantista, y en la que a las viviendas vacías se les realizara un recargo de 10 euros por m²., destinando este dinero a la compra de suelo en el municipio. Esto requiere una gestión por parte del Ayuntamiento necesaria en este momento y que no se plantea llevar a cabo.

Horregatik ez da aplikatzen, ziurrenik, inongo udaletan. Izan ere, zeregin horretan pare bat pertsona bideratu behar dituzu, hirigintzako taldean, benetan hutsik dauden etxebizitzen jarraipena egin dezaten. Eta hori da, hain zuzen ere, udaletan ez aplikatzeko arrazoia. Askoz errazagoa da foru-araua aplikatzea, eta kito. Baina, egia esan, foru-arauak ere bere amarruak ezkutatzen ditu, eta lege horrek, ordea, ez,. Baina ez da aplikatzen; izan ere,... nolabait, egitura bat behar du, segur aski, udaletan. Ezin dugu onartu gobernu-talde honen funtzionamendua arbitrarioa izatea eta gardentasunik ez izatea, 2025eko arau fiskalak

Esta es la razón por la que no se aplica, seguramente, en ningún Ayuntamiento. Porque esto es una labor, una labor en la cuál tienes que destinar un par de personas, en el equipo de urbanismo, el cuál haga el seguimiento de las viviendas que efectivamente están vacías. Y esa es la verdadera razón por la cuál no se aplica en los Ayuntamientos. Es mucho más fácil aplicar la Norma Foral y punto. Pero en realidad la Norma Foral también esconde sus triquiñuelas, y esta ley sin embargo, no,,. Pero no se aplica., porque…de alguna forma, requiere de una estructura, seguramente, en los Ayuntamientos. Debido a que



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

lantzerakoan gertatu den bezala. Ezin dugu onartu, ezta ere, Foru Arauaren errekarguen zati bat alokairuetarako edo lurzorua erosteko baliabide bihurtzeko aukerarik ez izatea. Aurrekoari gehitzen badiogu presio fiskala 3,5 dela eta KPIa baino kopuru handiagoa ezartzen duela, Talde Sozialistatik behartuta gaude Abotsanitz eta Bilduk aurkeztutako proposamen fiskalaren aurka bozkatzera. Finito.

no podemos aceptar que el funcionamiento de este Equipo de Gobierno se caracterice por la arbitrariedad y por la falta de transparencia, como ha ocurrido a la hora de trabajar las Normas Fiscales del 2025. Tampoco podemos asumir que no se contemple en ningún momento la posibilidad de convertir parte de los recargos de la Norma Foral en recursos para las ayudas de los alquileres, ni para la compra del suelo. Si a lo anterior añadimos que la presión fiscal supone el 3,5, e impone una cantidad superior al IPC, desde el Grupo Socialista nos vemos obligados a votar en contra de la propuesta fiscal presentada por Abotsanitz y Bildu. Finito.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko, Iosu. EH Bilduren izenean, Garoa, mesedez?

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias, Iosu. En nombre de EH Bildu, ¿Garoa, por favor?

**LEKUONA ANDREA:** Bai, arratsalde on. Guk ulertzen dugu, aldiz, gaur onartuko ditugun ordenantza fiskal hauek egiten dutela gure herria, gure Hondarribia justuagoa, sozialagoa.

**LA SRA LEKUONA:** Sí, buenas tardes. En nuestro caso, sin embargo, entendemos que estas ordenanzas fiscales que hoy aprobaremos hacen de nuestra ciudad, nuestra Hondarribia una ciudad más justa, más social.

Bale, lehen alkateak esan duen bezala Ordenantza Fiskal hauetan aldaketa sakonak egon dira; bereziki ulergarriagoak izateko eta orden bat izateko, guk mahai gainean jarri nahiko genukeena da zeintzuk izan diren gure proposamenak, eta gure proposamenak izan dira, alde batetik, Ordenantza Fiskal hauetan genero ikuspegia ere txertatzea, azken finean kontutan hartzeko datuak gero nola landu ahal diren. Baina bereziki egin ditugu gure ekarpenak etxebizitzari dagokionez, eta berriz ere aipatuko dut lehengoa, ez? bat egiten genuela ere PSE-EEk ere etxebizitza legearekin eta aipatzen zuena, baina beste gauza batzuetan kontraesanak badaudela.

Vale, como ha mencionado antes el alcalde, en estas Ordenanzas Fiscales se han producido cambios profundos; nos gustaría poner encima de la mesa para que sean comprensibles y para seguir un orden. Por un lado, incorporar la perspectiva de género en estas Ordenanzas Fiscales, para tener en cuenta cómo se pueden tratar los datos posteriormente. Pero en especial hemos hecho nuestras aportaciones en materia de vivienda, y volveré a mencionar lo anterior, ¿no?, que coincidíamos también con la ley de vivienda que mencionaba el PSE-EE, pero que hay contradicciones en otras cosas que decía.

(Soinua entzuten da)

(Se escucha un ruido de fondo)

Barkatu. Ondasun Higiezinaren Zergan…bai, %100eko igoeraren proposamena egina genuen, azkenean adostasunera %75era iritsi gara, bainan ez da inongo… ez? ez da zigortzailea, baizik eta esaten dugun bezala, politikak aurrera eraman nahi ditugulako, eta bereziki, da gure herrian badauzkagulako 1.408 etxebizitza inor erroldatu gabe, horietatik 1.221ek ez dute errekargutik salbuesten dituzten 3.000 kilovatteko kontsumorik… zenbat diren hutsak, legeak esaten

Perdón. En el Impuesto de Bienes Inmuebles... sí, teníamos una propuesta de incremento del 100%, al final hemos llegado a un acuerdo del 75%, pero no es... ¿no? no es por castigar a nadie, sino que, como decimos, queremos llevar a cabo políticas, y sobre todo porque tenemos en nuestra ciudad 1.408 viviendas sin empadronar, de las cuales 1.221 no tienen consumos de 3.000 kilovatios que les eximan del recargo... ¿cuántas están vacías, como dice la ley, no abiertas en dos años, o sin consumo?



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

duen bezala bi urtetan ireki gabekoak edo kontsumo gabekoak? noski horrek eskatzen digu, oraintxe Iosuk esan duen bezala azpiegitura bat, lantalde bat horretara dedikatzen dena, eta hori dena ere dirua da. Lehen esan dugun bezala, azken finean etxebizitzak hutsik egotea dagoen behar handiarekin, bada… luxu bat delako. Eta orduan politika publiko berrietarako ezinbesteko bitartekoak behar ditugulako.

Eta gero ere, etxebizitza turistikoei esplizituki, ez? esatea ezin dutela inongo hobaririk izan eta errekargua ere aplikatuko zaiela. Hemen, nik galdetu dut ere, azken finean beste udalerrietan ze igoerak planteatzen ari diren, ulertu genuelako Kontu-hartzailetzatik ere bestelako zenbateko handiagoak eskatzen zizkigutela, eta ulertu nahi dut horregatik…horren lerroan doazela beste herri batzuetan aplikatu nahi direna, bihar adibidez Irunen 4,3az ari da hizketan, Donostian EAJk 3,9a… Asko dira gu planteatzen dugun goratik doazenak.

Beraz, eta kontutan hartuta lehen, uste dut, luze eta zabalean alkateak aipatu dizkigu zeintzuk diren benetan eskuartean ditugun proiektuak eta erantzun nahi dizkiegunak, Baina probestu nahiko nuke beste irakurketa bat egiteko, zeren lanketa egin dugun honetan, jabetu gara ere Gipuzkoako Foru Arauak, Bizkaikoak eta Arabakoak baino… esan dezakegu eskasagoak direla, ez dira hain sozialak, ez digute uzten ahalbideratzen gure herriarentzat hain interesgarriak izango ziren zerga batzuk. Eta zehazki ari gara, adibidez, bai Araban edo Bizkaian aireportuei ezarri ahal zaizkien zerga tasa altuagoak, ez? kontsideratzen direlako ezaugarri bereziko ondasun higiezinak; eta ulertzen dugu gure herrian aireportuak beste aktibitate ekonomikoek baino gehiago ordaindu beharko lukeela.

Edo, baita ere, jarri edo aplikatu nahiko genuke katastro-balio altuena duten higiezinei ere zerga tasa altuago bat. Baina Gipuzkoako Foru Arauek ez dute ahalbideratzen, eta aldiz Bizkaikoak eta Arabakoak, bai. Beraz, espero dugu hurrengo urtean berriro data hauetan hemen gaudenean Gipuzkoako Foru Arauak ere berrituak egotea, eta Bizkaia eta Arabakoak dauzkaten ikuspegi sozialago horiek ere txertatuak izatea.

Claro, ello nos exige, como ha dicho ahora Iosu, una infraestructura, un grupo de trabajo que se dedique a ello, y todo eso es dinero. Como hemos dicho antes, en definitiva, que las viviendas estén vacías con la gran necesidad que hay, pues... es un lujo. Y entonces necesitamos los medios imprescindibles para las nuevas políticas públicas.

Y luego, decir explícitamente que las viviendas turísticas que no pueden tener ningún tipo de bonificación y que también se les aplicará el recargo. Aquí, yo también he preguntado, al fin y al cabo, qué subidas se están planteando en otros municipios, porque entendimos que también desde Intervención nos pedían importes más elevados, y por eso quiero entender que... van en la línea de ello lo que se quiere aplicar en otras localidades, por ejemplo en Irún se habla de 4,3, en Donostia-San Sebastián el PNV habla de 3,9... Son muchos los que van por la subida que planteamos.

Por lo tanto, debemos tener en cuenta los proyectos que están en nuestras manos ampliamente expuestos por el alcalde, y darles respuesta. Pero quisiera aprovechar para hacer otra lectura porque, cuando hemos tratado el tema, también nos hemos dado cuenta de que las Normas Forales de Gipuzkoa son inferiores a las de Bizkaia y Álava... podemos decir que son inferiores, no son tan sociales, no nos permiten unos impuestos muy interesantes para nuestra ciudad. Y nos estamos refiriendo específicamente, por ejemplo, a las tasas más elevadas impuestas a los aeropuertos en Álava o Bizkaia, por considerarlos bienes inmuebles de características especiales; entendemos que en nuestra ciudad el aeropuerto debería pagar más que otras actividades económicas.

Y del mismo modo, quisiéramos aplicar una tasa fiscal más elevada a los inmuebles con mayor valor catastral. Pero la Diputación Foral De Gipuzkoa no lo permite, y sin embargo la de Araba y la de Bizkaia sí. Por lo tanto, esperamos que el próximo año por estas fechas cuando estemos aquí las Normas Forales de Gipuzkoa estén actualizadas, y que incluyan los puntos de vista más sociales que tienen las de Bizkaia y las de Araba.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Orduan, guk argi daukaguna da hasi egin garela, bide bat hasi dugula, oinarria txukundu dela, ikuspegi inklusibotik, ulertzetik, pezetak beharrean euroak agertzetik, baina bide bat dela, oinarri bat, zeren guzti honek bai eskatzen digu progresibitatea kontutan hartzea, eta gure tasak eta askoz ere justuagoak eta sozialagoak izatea. Eta poliki-poliki joango gara bidea egiten, nik uste dut zenbait gauzatan bat egiten dugula, baina momentu honetan eta gure herriak bai eskatzen duela etxebizitzari dagokionez politika arduratsu batzuk, ikusita ze egoeran bizi garen.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko, Garoa. Nik ere egingo dut balorazio bat, izan ere gustatuko litzaidake abiatzea, lehenik eta behin, forma kontuetatik, zeren hemen aipatu da, eta ulertu dut justifikatu direla hainbat kontrako bozka forma kontuetan, nahiz eta egiten den proposamenaren zati askorekin adostasuna badagoela adierazi den. Forma kontuei dagokienean, eta zuek ondo jaso duzue, eta adierazi duzue, apirilean abiatu genuen aldaketa hau egiteko proposamena, eta udal talde guztiei proposamenak edo ekarpenak egitea eskatu nizuen. Eta hemen aipatu da, Abotsanitzek egin zituen ekarpen batzuk, EH Bilduk egin zituen ekarpen batzuk, PSE-EEk urriaren 15ean, hau da, kritikatzen den dokumentazioa jasotzearen egun berberean, berak, PSE-EEk egin zuen ekarpena eta EAJk, aldiz, ekarpenik, idatzizkorik, ez du egin, prest daudela adierazi arren, ez?

Baina lan egiteko modu hau nondik dator? Nondik dator apiriletik proposatzea hasieratik lanketa bat abiatzera goazela eta denok elkarrekin egin behar dugun lanketa bat iritzi diogula dela egokiena? Bada… ni alkate izatera iritsi zen lehenengo momentutik, lehenengo egunetik, aipatu nuen udalean beste modu batera jarduteko borondatea genuela, eta askoz ere osasungarriagoa iruditzen zitzaigula udala osatzen dugun eragile guztiok, guzti-guztiok egin beharrekoetan hasieratik parte-hartzea. Orri zurietatik parte-hartzea da proposatu dudana behin eta berriro, baina iruditzen zait, eta hala adierazi izan didazue, bereziki EAJ eta PSE-EEtik, konfrontatu nahi dituzuela ereduak.

Entonces, lo que tenemos claro es que hemos empezado, que hemos iniciado un camino, que la base de las ordenanzas se han adecuado, con una perspectiva inclusiva, con un texto más inteligible, con la expresión en euros en lugar de pesetas, pero vemos que es un camino, una base, porque todo esto sí nos exige tener en cuenta una progresividad y que nuestras tasas sean mucho más justas y sociales. Y vamos caminando poco a poco, yo creo que hay cosas en las que coincidimos, pero en este momento y en nuestra ciudad sí son necesarias unas políticas responsables en materia de vivienda, dada la situación en la que vivimos.

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias, Garoa. Yo también haré una valoración, ya que me gustaría empezar, en primer lugar, por lo formal, puesto que aquí se ha mencionado ese aspecto, y he entendido que se ha justificado el voto en contra en las formas, aunque se ha manifestado que se está de acuerdo con muchas partes de la propuesta que se realiza. En cuanto a los aspectos formales, y vosotras y vosotros lo habéis recogido bien, y así lo habéis manifestado, en abril iniciamos la propuesta para la modificación de las ordenanzas, y os solicité a todos los grupos municipales que hicierais propuestas o aportaciones. Y tal y como aquí se ha mencionado, Abotsanitz hizo algunas aportaciones, EH Bildu hizo algunas aportaciones, el PSE-EE hizo el 15 de octubre, es decir, el mismo día que se recibe la documentación que se critica, hizo su aportación, mientras que el PNV, por escrito, no ha realizado aportaciones, aunque se haya mostrado dispuesto, ¿no?

Pero, ¿de dónde proviene esta forma de trabajar? ¿De dónde viene la propuesta realizada desde abril de que empecemos desde el principio a trabajar, ya que hemos considerado que lo más adecuado es trabajar conjuntamente? Pues... yo desde en que tomé la presidencia de la alcaldía, desde el primer día, dije que teníamos voluntad de actuar de otra manera en el ayuntamiento, y que nos parecía mucho más saludable que todos los agentes que formamos el ayuntamiento, desde el principio, participáramos en las labores a realizar. Lo que he propuesto es participar partiendo de hojas en blanco, pero me parece, y así me lo habéis hecho llegar, que especialmente desde EAJ-PNV y PSE-EE queréis confrontar los modelos.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Nik, aldiz, proposatzen dudana da konfrontaziorik urrunduta guztion ekarpenekin egitea lanketa, Udala hondarribiarrona baita, eta Udal bakarra garen… udal bakarra garelako, barkatu. Eta konfrontatu behar hori niri harrigarria iruditzen zait, eta modu batean ere mingarria egiten zait. Mingarria egiten zait ez naizelako ero bat, ez noalako bakarrik munduan …edo Gobernu Talde honetatik ez goazelako bakarrik munduan egiteko modu berri batzuk planteatzeko garaian. Nik uste dut PNV eta PSE-EE aliantza aintzinean aingura botata dagoela Hondarribian, bereziki Hondarribian. Eta zergatik esaten dut hau? Hemen aipatzen da, eta justifikatzen da, kontrako bozka bat forma kontuetan, aipatzen da gardentasun eza, hasiera-hasieratik denok lanketarako proposamena egiten denean. Eta nik esango dut, pertsonalki, adibidez, eta horregatik esaten dut ez nagoela eroa, pertsonalki inplikatu naiz Gipuzkoako Foru Aldunditik proposatu diguten ekimen batean, eta ekimen hori Etorkizuna Eraikiz ekimena da.

Etorkizuna Eraikiz proposamenaren barruan gobernantza eredu berriak lantzen ari gara; Udal Etorkizuna Eraikiz prozesuak daude martxan gaur egun, eta bertan barne hartzen da eredu berri hauen inguruko hausnarketa proposamena eta lidergo eredu berriak jorratzeko proposamena. Modu horizontalean eta ahal den mailarik zabalenean jorratzeko ekimenak Gipuzkoako Foru Aldunditik ere lantzen ari dira, eta horretan parte hartzen ari gara. Eta EAJk eta PSE-EEk dute gaur egun Foru Aldundiaren Gobernantza eta hainbat alderditako kideak gobernatzen ditugu Gipuzkoako Udal ezberdinak.

Honetaz ari gara eztabaidatzen alderdi ezberdinetako udal ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundian. Honetaz ari gara, modu hauetaz ari gara eztabaidatzen, Badaudela egiteko modu ezberdinak, konfrontaziotik haratago doazenak, pentsamendu desberdinetako ikuspegiak jasoko dituztenak, eta ekimen horiek bultzatu nahian bagabiltza. Eta guzti hau, zertarako? Bada hain sinplea da… herritarrek erakundeekiko duten desapegoari aurre egiteko da, guzti hau. Ikusten gaituztelako hemen konfrontazioan, talkan, eta horrela jasota dago, herritarrek ez dutelako egiteko modu hori gustukotzat hartzen, edo aintzakotzat hartzen.

Lo que yo propongo es trabajar con las aportaciones de todas y todos alejados de la confrontación, porque el Ayuntamiento es de los hondarribiarras y somos el único Ayuntamiento. Y esa necesidad de confrontar me parece sorprendente y de alguna manera me duele. Me duele porque no soy un loco, no voy solo por el mundo... o porque desde este Equipo de Gobierno no vamos en solitario en el mundo a plantear nuevas formas de trabajar. Yo creo que la alianza PNV y PSE-EE está desde antiguo fondeada en Hondarribia, especialmente en Hondarribia. ¿Y por qué digo esto? Se menciona aquí y se justifica, un voto en contra basado en el aspecto formal, la falta de transparencia, cuando desde el principio se propone que trabajemos todos y todas. Y yo diré personalmente, por ejemplo, y por eso digo que no estoy loco, personalmente me he implicado en una iniciativa que nos han propuesto desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, y que es Etorkizuna Eraikiz.

Dentro de la propuesta Etorkizuna Eraikiz estamos trabajando en nuevos modelos de gobernanza; actualmente están en marcha los procesos Udal Etorkizuna Eraikiz, en los que se incluye la propuesta de reflexión en torno a estos nuevos modelos y la propuesta de abordar nuevos modelos de liderazgo. Se está trabajando y participando también desde la Diputación Foral de Gipuzkoa en iniciativas para abordarlas de forma horizontal y al más amplio nivel posible. Y el PNV y el PSE-EE tienen actualmente la Gobernanza de la Diputación Foral y los diferentes Ayuntamientos de Gipuzkoa los gobernamos miembros de diferentes partidos.

Acerca de ello estamos debatiendo las y los representantes municipales de los diferentes partidos en la Diputación Foral de Gipuzkoa. Hablamos de ello, debatimos sobre ello, de que existen diferentes maneras de hacer, que van más allá de la confrontación, que van a recoger puntos de vista de diferentes pensamientos y que estamos tratando de impulsar esas iniciativas. Todo esto, ¿para qué? Pues es tan simple... es para hacer frente al desapego que la ciudadanía tiene con las instituciones. Porque nos ven aquí en la confrontación, en el choque, y así está recogido, porque la ciudadanía no valora esa forma de hacer como satisfactoria.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Baina ikusten da beste instituzioetan eta beste instituzioekin lantzen ari garen bidea Hondarribian ezinezkoa dela. Hemen PNVk eta PSE-EEk konfrontazioa bilatzen duzue, proiektuen konfrontazioa. Hau zuen hitzak dira, nahi duzuela aurkeztea dokumentazio osoa dokumentazio hori konfrontatzeko eta guk proposatzen ari garena, aldiz, da, goazen abiatzea zerotik, eta egin dezagun lanketa elkarrekin. Bada, Hondarribian, beste erakundeetan posible dena, Hondarribian ezinezkoa da, kasualitatea.

Pero está visto que en Hondarribia no es posible el camino que estamos emprendiendo en otras instituciones y con otras instituciones. Aquí el PNV y PSE-EE buscáis la confrontación, la confrontación de proyectos. Estas son vuestras palabras, que queréis que se presente toda la documentación para confrontarla, y lo que nosotros proponemos es que vayamos desde cero y trabajemos juntos. Pues bien, en Hondarribia, lo posible en otras instituciones, es imposible, casualidad.

Aipatu da…bueno, jarraituko dugu formekin. Zeren lehen ere aipatu dut. Iritzi ezberdinak izatea iruditzen zait zilegia dela, eta aberasgarria dela ere, iruditzen zait. Baina ez zait iruditzen bidezkoa dela Iosuk aipatzen zuenean ez daudela helburu finalistak egiten diren dirubilketa hauetan, ari zen PMSa deitzen dioguna, Udalaren Lurzoru Ondareari buruz ari zela, edo horrela ulertu dizut nik, ez da hala, Iosu? Bai, ez da hala? Horri buruz ari zinen eta galdetzen dizut, zeren bestela esango duzu nik esaten dudana zuk ez duzula esan, PMSari buruz edo Lurzoruaren Ondareari buruz ari zen, eta Hondarribiko Udalak badauka bere kontabilitatean atal bat lurzoruaren ondareari buruzkoa, eta jasotzen ditu ekarpen batzuk. Adibidez, 2024an aipatuko dut lurzoruaren ondare horren partidatik erabili direla hainbat proiektu gauzatu ahal izateko, hala nola hiru haur parke estali dira partida horretatik. Amuteko obra guztia erabili da partida horretatik. Finalistak diren partidak dira, diru ekarpenak egiten ditugunean edo zergak ordaintzen ditugunean, noski finalistak badirela. Eta badaukagu gure kontabilitatean jasota 2024an, ez banago oker, eta gutxi gorabehera esango dut, 720.000 bat euro bideratu dira finalista den partida horretatik, lurzoruaren ondaretik bideratu dira. Are gehiago esango dut, gure aurrekontuan ere jasota daukagu partida bat etxebizitza bat erosteko. Kreditu aldaketan onartu genuen eta azaldu zen guztioi partida bat jasotzen genuela etxebizitza bat erosteko, ondoren hori izango zelarik gure etxebizitza parke publikoaren hastapenetako bat, eta gauzatzera bidean gaude.

Se ha dicho... bueno, seguiremos con las formas. Porque lo he mencionado también antes. Me parece legítimo y, por lo tanto, enriquecedor tener opiniones diferentes. Pero no me parece justo que Iosu dijera que estas recaudaciones carecen de objetivos finalistas, en lo que respecta al PMS, se refería a Patrimonio Municipal del Suelo, o así lo entiendo yo, ¿no es así, Iosu? Sí, ¿no es así? Hablabas de esto y te pregunto, porque de otra manera dirás que lo que digo tú no lo has dicho, se refería al PMS o al Patrimonio del Suelo. Y diré que el Ayuntamiento de Hondarribia tiene en su contabilidad un apartado sobre el patrimonio del suelo y recoge algunas aportaciones. Por ejemplo, en 2024 comentaré que se han utilizado unas cantidades de la partida de este patrimonio del suelo para poder llevar a cabo proyectos como la cobertura de tres parques infantiles. De esta partida se ha utilizado toda la obra de Amute. Cuando realizamos aportaciones o pagamos impuestos van a partidas finalistas, claro está que son finalistas. Y ya lo tenemos recogido en nuestra contabilidad en 2024, si no me equivoco, y diré más o menos, se han destinado unos 720.000 euros de esta partida finalista, se han destinado con patrimonio del suelo. A mayor abundamiento, también tenemos presupuestada una partida para la compra de una vivienda. Lo aprobamos en la modificación de crédito y se explicó que recogíamos una partida para la compra de una vivienda que luego sería uno de los inicios de nuestro parque público de vivienda, y estamos en vías de materializarla.

Horiek dira partida finalistak, zerga jasotzen ditugunean horrelako gauzetara bideratzen dugu. Ezin dena esan hemen da ez dagoela…ez ditugula erabilera finalistarik egiten; badaude, eta egiten ditugu, eta adibideak oso garbiak dira. Aipatu da

Esas son las partidas finalistas, cuando recaudamos un impuesto lo destinamos a esas cosas. Aquí no se puede decir que no tengamos objetivos finalistas, los hay, los tenemos y los ejemplos son muy claros. Se comenta tanto por parte del PNV como

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

hemen bai EAJren aldetik eta baita ere PSE-EEren aldetik aurten ez dela erabiliko jasotzen den adinako diru kopururik. Esan da diruzaintzako gerakina handituko dela. Hemen esan da eta hortik ere esan duzue. Bada… gustatuko litzaidake jakitea… baina irakurketa bat izan denez hor jasota egongo da, noski, eta aipatu da ez dela erabiliko jasotzen den diru guztia.

por parte del PSE-EE que aquí no se va a utilizar la cantidad que se recaude este año. Se dice que aumentará el remanente de tesorería. Se ha dicho aquí y también lo habéis dicho por ahí. Pues... me gustaría saber…pero como ha habido una lectura estará ahí, claro, y se ha dicho que no se va a utilizar todo el dinero que se recaude.

**CARRION JAUNA:** Hori gauza desbedina da, ez da remanentea erabiltzea…

**EL SR CARRIÓN:** Eso es distinto, no es usar el remanente…

**ALKATE JAUNA:** Remanentea, sortuko dela, hombre hori… hori esan da. Jasoko baldin bada diru gehiago erabiliko dena baino, remanenterako izango da, eta hori aipatu da. Eta, aldiz, kezkatuta nago gardentasun falta esaten denean, eta lehen lehenengo sei hilabetekoen aurrekontuaren exekuzioari buruz hitz egin dugunean, aipamena espreski egin da zenbat diru-bilketa izan den ekainaren 30a arte eta zenbateko gastua izan den ekainaren 30a arte. Eta ez dakit nondik ateratzen duzuen ondorio hori, izan ere lehenengo seihilabetekoan jaso dena baino gehiago erabili denean, gehiago gehiago gastatu denean. Bada… oso ausarta iruditzen zait dela egiten den aipamen hori, nik esperantza daukat jasotzen den guztia erabiliko dugula, eta jasotzen den guztia proiektu konkretuetan erabiliko dela.

**EL SR ALCALDE:** Que se va a crear remanente, hombre... eso…eso se ha dicho. Si se recauda más dinero que el que se va a destinar, será para el remanente, y eso se ha dicho. Y, en cambio, me preocupa que cuando se habla de falta de transparencia, y cuando se habla de ejecución presupuestaria de los primeros seis meses, se haga referencia expresa a la recaudación hasta el 30 de junio y al gasto hasta el 30 de junio. Y no sé de dónde sacáis esa conclusión, porque cuando se ha utilizado más de lo que se ha recaudado en el primer semestre, se ha gastado más. Pues... me parece muy osado eso que se ha dicho, yo tengo la esperanza de que utilizaremos todo lo que se recaude y de que todo lo que se recude se utilizará en proyectos concretos.

Baina formako gai hauek aipatuta, gustatuko litzaidake pixka bat eraikitzaileagoak diren gaietan murgiltzea, ez? Eta udal Gobernu Taldetik egindako proposamenean zerga eta tasen orokortasunean 3,5% eko igoera bat jasotzen da, bai, eta hori esaten ari gara, eta hori jendarteratu nahi dugu, eta horretarako eztabaida-gunea udalbatza dugu.

Pero haciendo referencia a estos temas formales, me gustaría adentrarme en temas un poco más constructivos Y en la propuesta realizada desde el Equipo de Gobierno Municipal se recoge un incremento del 3,5% en la generalidad de impuestos y tasas, que estamos mencionando y que queremos divulgar, para lo que el foro de debate es el Pleno.

Kasu honetan aipatuko dut IBIa edo ondasun higiezinen gainekoan 1,75ekoa dela, eta esan dugu, eta aipatu dugu, %3,5 erako igoera orokor horren barruan… kontutan edukita katastroak edo Foru Aldundiak katastroan egingo duen igoera horretan, ez pasatzeko % 3,5 horretatik, eta guk nahiz eta zergarik nabarmenean jasotzen dugun igoera txikiagoa den, egiten dugu gure %3,5eko bolumen orokor horren barruan, ez? Eta hori da gardentasuna, esatea beldurrik gabe zergak igotzera goazela baditugulako hainbat proiektu eta egiten dugun irakurketa global baten barruan %3,5ekoa

En este caso me refiero a que en el IBI o el impuesto sobre bienes inmuebles es del 1,75, y hemos dicho que teniendo en cuenta este incremento global del 3,5%, y que no queremos superar el incremento que realizará la Diputación Foral en el catastro, para no pasarnos el 3,5%, aunque el incremento que recogemos en el impuesto más significativo es menor, lo hacemos dentro de ese volumen global del 3,5%, ¿no? Y eso es transparencia, declarar sim miedo que vamos a subir impuestos, porque tenemos varios proyectos y dentro de una lectura global que hacemos

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

esango dugu. Lehen aipatu dut ere 2012tik izoztuta egon diren zerga baten inguruan 3,5eko igoera batetaz ari gara. KPIaren igoeraz geroztik kontutan hartuko bagenu, oso maila samurrean, edo mugatuan ari gara igotzen, zeren KPIaren metaketa 2012tik 2024kora aztertzen baldin badugu, igoera hori 10 aldiz handiagoa izango da agian, edo gutxi gorabehera.

Denok ikusi duzue teknikari txostenetan eta Garoak aipatu duen bezala, kontu-hartzaile jaunak aditzera ematen zuela eman beharreko zerbitzuei… zerbitzuaren kosteari aurre egiteko, eta inbertsioak burutzen jarraitu ahal izateko, % 5eko igoera bat jasotzea litzatekeela egokiena. Eta 3,5% ekoa jaso dugu, uste dugulako igoerak eman behar baldin badira ziurtatzen joan behar ditugun egoera batzuen aurrean ari garela. Samurtzeko eta guztion artean ere errazagoa izateko halako gauzei aurre egiteko. Baina zeri erantzungo dio igoera horrek? Lehen, hasieran egin dudan adierazpenean ere aipatu dut… autobus zerbitzu bat jarri nahi dugu martxan. Eta zuek badakizue oso ongi ze kostu duen autobus zerbitzu horrek martxan jartzeko, milioi erdi bat euro…eta horretarako baliabideak behar ditugu, zerbitzu berri bat izango da, milioi erdi bat eurokoa.

Gainera zuek eskatzen ari didazue zerbitzu hori, autobusarena, adibidez, maiztasun handiagoarekin izatea eta ia-ia kostua bikoizten zuen proposamen bat jarri duzue mahai gainean, baina ez zaudete prest zerga igoera bat ontzat ematera. Lorezaintza bezalako zerbitzuak jasoko duten egoera aipatu dut zein den, eta oinarrituta dago. Duela lau urte egin zenetik zerbitzu horren emakida… 3…3 urte. 4 ez banago oker, baina bueno, nahi baduzue 3, nik uste dut 4 direla, baina nahi baduzue 3. Zenbatekoa izan da KPIaren igoera? Langileek KPI horretatik ez dute ezertxo ere ikusi. Ezertxo ere.

Kiroldegiaren kudeaketa berria … lehen aipatu ditut zenbat zerbitzu berri…kale garbiketa ehuneko 25eko igoera. Gauza guzti horiek finantzatu beharrekoak dira, ari da planteatzen zergen igoera bat % 3,ekoa. Bada…noski, jakingo duzuen bezala aurrekontuak orekatu behar ditugu ondoren, eta badakigu guztiok, bereziki kudeaketan gabiltzanok, badakigu zein zailak diren aurrekontuak orekatzea. Orduan eskatzen da zerbitzu gehiago, zerbitzu hobeagoa, inbertsio gehiago, obra gehiago… obrek

establecemos un 3,5%. También he mencionado anteriormente que se trata de un incremento de 3,5 sobre un impuesto congelado desde 2012. Si tuviéramos en cuenta el aumento del IPC desde entonces, lo estamos incrementando a un nivel muy leve o limitado, porque si analizamos la acumulación del IPC desde el 2012 hasta el 2024 el incremento sería 10 veces mayor, quizás, o aproximadamente.

Todos habéis visto que en los informes técnicos tal y como ha comentado Garoa, el sr. interventor decía que para hacer frente al coste de los servicios a prestar... y poder seguir realizando las inversiones, lo más adecuado sería realizar un incremento del 5%. Y hemos realizado un 3,5% porque creemos que si hay que realizar incrementos debemos afrontar situaciones que tenemos que ir asegurando. Para que entre todos y todas sea más fácil hacer frente a este tipo de cosas. Pero ¿qué fin tendrá este incremento? Antes, ya lo he mencionado en mi declaración inicial... queremos poner en marcha un servicio de autobús. Y vosotras y vosotros sabéis muy bien el coste de poner en marcha ese servicio de autobús, medio millón de euros... y para ello necesitamos recursos, será un nuevo servicio, de medio millón de euros.

Además, me estáis pidiendo que este servicio, el del autobús, por ejemplo, tenga una mayor frecuencia y habéis puesto sobre la mesa una propuesta que casi duplicaba el coste, pero no estáis dispuestos a dar por bueno un aumento fiscal. He mencionado cuál es la situación que van a tener servicios como el de jardinería y está fundamentada. Desde hace cuatro años la concesión de este servicio... 3... 3 años. 4, si no me equivoco, pero bueno, si queréis 3, yo creo que son 4, pero si queréis 3. ¿Cuánto ha subido el IPC? De ese IPC los trabajadores no han visto nada. Nada.

La nueva gestión del polideportivo... antes he comentado varios servicios nuevos... el coste de la limpieza de calles ha aumentado un 25 por ciento. Todas estas cosas deben financiarse, se está planteando una subida de impuestos del 3%. Pues... claro, como sabéis después tenemos que equilibrar los presupuestos y todas y todos, especialmente las y los que estamos en la gestión, sabemos lo difícil que es equilibrar los presupuestos. Entonces se pide más servicios,

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

eduki duten igoera azkeneko hiru urteetan edo pandemiarik gaur egun arte izugarria izaten ari da, eta ditugu 2012tik diru-sarrerak izoztuak, eta igoera bat beste herriekin alderatuta, parean edo baxuagoa gaudenean, eta zuek agintzen duzuen herri horietan planteatzen dituzuenean igoera haundiagoak…eta Hondarribirako ez dute balio.

mejor servicio, más inversiones, más obras... el incremento que han tenido las obras en los últimos tres años desde la pandemia o hasta la actualidad está siendo tremendo, y desde 2012 tenemos unos ingresos congelados, y hay un aumento en otras ciudades con respecto al que estamos a la altura o por debajo, y en los que  os comprometéis a plantear mayores subidas... y no sirven para Hondarribia.

Horrela jokatzen duzue PNVk eta PSE-EEk aliantzan. Irunen PSE-EEk, 4,3ko igoera planteatu du, bihar eztabaidatuko dutenak, Garoak adierazi duen bezala.  Donostian EAJk PSE-EErekin %3,9koa, Eibarren 3,6 koa da. Hondarribiarrek ulertuko dute bestelako herrietan egindako planteamenduak gurean ere baliagarriak izan daitezkeela, ez? Ulergaitza dena da PNV-PSE-EE aliantzak beste erakundeetan planteatutako igoerak arrazoizkoak izatea eta hori baino murritzagoak, gainera, ez izatea onargarriak Hondarribian. Nire ustez hori ez da politika. Nire ustez hori ez da politika, eta hemen politikan ari gara. Lehen, Iosu esan duzu politikaz ez hitz egiteko, baina hemen politikan ari gara. Eta politikeoa, aldiz, beste gauza bat da. Bai, zuk esan duzu.

Así actuáis el PNV y el PSE-EE en alianza. En Irun el PSE-EE plantea un aumento del 4,3 que se debatirá mañana, tal y como ha señalado Garoa. En Donostia el PNV con el PSE-EE plantea el 3,9%, en Eibar es del 3,6. La ciudadanía de Hondarribia comprenderá que los planteamientos realizados en otras localidades pueden ser de utilidad en nuestro caso, ¿no? Lo que resulta difícil de entender es que los incrementos planteados por la alianza PNV-PSE-EE sean razonables en otras instituciones y que otros más reducidos no sean aceptables en Hondarribia. Yo creo que eso no es política. Yo creo que eso no es política y aquí estamos en política. Antes has dicho Iosu que no hablemos de política, pero aquí estamos hablando de política. Y el politiqueo es otra cosa. Sí, tú lo has dicho.

Eta errepikakorra izaten utziko didazue. Baina behin eta berriro errepikatuko naiz. Hondarribiarrek ez dute konfrontazioa nahi.  herritarrek ez dute konfrontazioa nahi, ez dute proiektuen arteko txokeak nahi. Hondaribiarrek, eta herritarrek, oro har, askoz ere aberasgarriago ikusten dute elkarren arteko lankidetzak egitea. Ikusten dute proiektuak negoziaketaren bitartez, noski, planteamendu ezberdinak mahai gainean jarriz eta hitz eginez, horrela adostasunetara iristea askoz ere eraginkorragoak direla erakundeak ikusten dute. Eta apirilaren 18an aipatu nuen bezala ordenantza fiskalen aldaketarako lehenengo momentutik udal talde guztiei proposamena egiten geniela ordenantza horretan ekarpenak egiterako garaian, aurrekontuetarako ere lehenengo momentutik, eta orriak zuri zeudenean, egin dizuet planteamendua urria amaiera aurretik ekarpenak egiteko ahal den neurrian ezberdinen arteko dokumentuak adosten saiatzeko. Eta horretan intsistituko dut behin eta berriro, konfrontaziorik urrunduz eta elkarkidetza eta proiektu bateragarriak egiten saiatuz. Eta hori da gaurko proposamenaren nondik norakoak, eta formetan argudiatu denez kontrako jarrera bat, nik

Y me permitiréis ser repetitivo. Pero me repetiré una y otra vez. La ciudadanía de Hondarribia no quiere confrontación, no quieren choques entre proyectos. Las y los hondarribiarras y la ciudadanía en general ven mucho más enriquecedora la colaboración. Ven que, por supuesto, a través de la negociación de los proyectos, poniendo encima de la mesa distintos planteamientos y hablando, de esta manera, ven que las instituciones llegan a acuerdos mucho más eficaces. Y como mencioné el 18 de abril, desde el primer momento en el que propusimos la modificación de las ordenanzas fiscales planteábamos a todos los grupos municipales una propuesta a la hora de hacer aportaciones a dicha ordenanza, también a los presupuestos, y os propuse, estando las hojas en blanco, que plantearais vuestras aportaciones para finales de octubre para intentar en la medida de lo posible consensuar los documentos entre diferentes. E insisto una y otra vez, lejos de la confrontación e intentando llevar una convivencia y un proyecto compatibles. Y esa es la esencia de la propuesta de hoy, y como se ha argumentado una posición



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

ere formetan jarriko dut nire indarra defendatzerako garaian proiektu hau. Mila esker.

contraria en cuanto a las formas, yo también pongo mi fuerza en las formas a la hora de defender este proyecto. Muchas gracias.

Ongi baderitzozue bosgarren…

Si os parece bien pasaremos al quinto …

**ALVAREZ JAUNA:** Erreplika izango dugu, ezta?

**EL SR ALVAREZ:** Réplica tendremos, ¿no?

**ALKATE JAUNA:** Zer nahi duzu, erreplika bat?

**EL SR ALCALDE:** ¿Qué quieres, una réplica?

**ALVAREZ JAUNA:** Bai, porque esan duzu…izan ere esan dituzun gauzekin harrituta utzi nauzu.

**EL SR ALVAREZ:** Sí, porque has dicho…has dicho cosas que desde luego me has dejado alucinado.

**ALKATE JAUNA:** A, bueno, ba zure erreplika eta gero nirea?

**EL SR ALCALDE:** Ah, bueno, ¿entonces tu réplica y luego la mí?

**ALVAREZ JAUNA:** Nik erantzun egin behar dut, hau da, hemen PNV-PSE.-EE aliantzaz hitz egin da, hori izango balitz bezala ez dakit zer... baina... mesedez, zer da hau? Oso erraza da denak elkarrekin ikustea, ezta? Pilotalekua da? Ez... kontuz, kontuz. Ez da hala. Politikan gauzak ez dira horrela. Hemen bakoitzak bere galderak ditu. Eta gaira itzuliko naiz.... formaren gaira. Hainbeste izendatzen ari garen apirileko batzordean, honako hau esan zen: " Alvarez jaunak galdetu du ea gobernu taldeak lerro estrategikoren bat aurkeztuko duen gainerakoek beraien proposamenak aurkeztu ahal izateko, eta denbora gehiago behar izanez gero, luzatu ahal izateko. Enparan jaunak, zinegotziek adierazitakoari erantzunez, esan du proposamenak sarrera erregistroaren bidez aurkeztu ahal izango direla. Talde guztiek hasieratik parte hartu ahal izatea eskatu da. Bi hilabete proposamenak aurkezteko epe nahikoa dela eta azken eguna ekainaren 30a izango dela adierazi du, Eta ondoren, teknikariekin batera aztertu egingo direla indarrean dagoen araudia kontua hartuta, eta irailetik urria bitarte batzordean landuko direla urriko udalbatzan onartu ahal izateko. ". Eta hemen, laburpen honen ondoren –zure hitzak azaldu ditut–, honako hau aurkitzen dugu: 48 ordu lehenago, zorro osoa mahai gainean dugula, ez teknikariak, ez arraio! Hori da errealitatea. Hori da errealitatea, Igor, hori da errealitatea. Eta hori da lan egiteko modua, eta nik uste dut hori saihestu behar dela. Hau da, hilabete barru ditugun hurrengo aurrekontuetan, eskatzen dudan bakarra da zuk duela bi urte eskatu zenuena. Hau da, gutxienez 15 egun izatea gauzak eztabaidatu eta landu ahal

**EL SR ALVAREZ:** Yo tengo que replicarme, es decir, aquí se ha hablado de la alianza PNV-PSE.-EE, como si fuera esto la panacea de no sé qué…pero…por favor, ¿qué es esto? Es muy fácil ver a todos juntos, ¿no? ¿Es el frontón? No…cuidado, cuidado. No es así. Las cosas en política no son así. Aquí cada uno tiene sus cuestiones. Y vuelvo al tema….al tema de la forma. En la comisión de abril que tanto estamos nombrando, dice: “El Sr. Álvarez pregunta si el Equipo de Gobierno va a presentar alguna línea estratégica para el resto, lo va a presentar sus propuestas en el caso de necesitar para más tiempo, que este se pueda alargar. El sr. Enparan, contestando a lo contestado por distintos concejales dice que las propuestas podrán presentarse a través del registro de entrada. Se pide que todos los grupos políticos puedan participar en el proceso desde el principio. Dice que dos meses constituyen un plazo suficiente para presentar las propuestas, y que el 30 de junio será el último día. Y que, posteriormente, junto con el personal técnico, se analizarán y estudiarán teniendo en cuenta la normativa vigente, y entre septiembre y octubre se tratarán en comisión para poder aprobarlo en el pleno de octubre”. Y aquí, después de todo este resumen, en el cuál son palabras tuyas, lo que nos encontramos es que 48 horas antes nos encontramos con todo el fajo encima de la mesa, ¡ni técnicos/as ni puñetas! Esa es la realidad. Esa es la realidad, Igor, esa es la realidad. Y esta es la forma de trabajar, que yo creo que es lo que hay que evitar. Es decir, que en los próximos presupuestos que tengamos dentro de un mes,



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

izateko, eta ez da nik esaten dudan zerbait, duela bi urte zuk esan zenion, aurrekontuen gaiarekin EAJri. Orain gauza bera aplikatu behar dugu, hori baita demokrazia. Ez dit balio gero betetzen ez dituzun gauzak aplikatzea. Eta hori ez da ez dakit zeren aliantza estrategiko bat, hori da errealitatea, eta hori da errespetatu behar dena. Eta bukatu dut.

solamente lo que pido, es algo que tú pedías hace dos años. Y es que por lo menos tengamos 15 días para poder discutir las cosas, y poder trabajarlas, y no es algo que lo digo yo, lo dijiste tú hace dos años, con el tema de los presupuestos al PNV. Ahora tenemos que aplicar lo mismo, porque eso es la democracia. Lo que no me vale es que apliques cosas que luego no las cumples. Y eso no es una alianza estratégica de no sé qué, eso es la realidad, y eso es lo que hay que respetar. Punto.

**ALKATE JAUNA:** Bai, Gonzalo?

**EL SR ALCALDE:** ¿Sí, Gonzalo?

**CARRION JAUNA:** Erantzun dezaket, ez?

**EL SR CARRIÓN:** Puedo contestar ¿no?

**ALKATE JAUNA:** Iosuri?

**EL SR ALCALDE:**¿a Iosu?

**CARRION JAUNA:** Ez, ez. Zure debate politiko luze honi…

**EL SR CARRIÓN:** No, no. A esta larga exposición política tuya

Bi zuzenketa txiki: Bat: Udalbatzak eztabaidatzeko ez dakit diren, zeren hona ekartzen dira diktamenak batzordetik, eta batzordeetan egin behar dira eztabaidak. Diktamenak onartu, eta gero udalbatzetan bozkatu.

Dos pequeñas correcciones: Una: No sé si los Plenos son para debatir, porque aquí se traen los dictámenes de la Comisión y hay que debatir en las Comisiones. Se aprueban los dictámenes y posteriormente se votan en los Plenos.

Eta gero, zuzenketa bat egin nahi nuke, Toki Araubidearen Legean, jartzen du, zuzendu nazazue, mesedez, komisioetara bi egun baliodun lehenago dokumentazioak emana egon behar du. Idazkari jauna, hala da, ez? Bai, ez? Hala den moduan daramagu aurten 20 batzorde desberdinetan ez dela epe hori konplitu, eta daude beste hamar ez dela modu egokian eman, eta orduan ez esan hemen esan dituzun gauza guzti horiek, ez naiz sartuko detalleetan, zeren etorri behar gara arau fiskalak bozkatzera, eta ez debate politiko bat egiteko. Eta hori zuzenketa moduan nahiko nuke jarri. Eta ez dut gehiago esango.

Y luego me gustaría hacer una corrección, La Legislación del Régimen Local, por favor, me corregís, dos días hábiles antes tiene que estar la documentación entregada. Sr. secretario, así es, ¿no? Sí, ¿no? Pues llevamos este año 20 comisiones diferentes en las que el plazo no se ha cumplido, y hay diez más en las que no se ha dado de manera adecuada, y entonces no digas todas las cosas que has dicho aquí; no voy a entrar en los detalles, porque tenemos que venir a votar las normas fiscales y no a un debate político. Y eso me gustaría decirlo como corrección. Y no voy a decir más

**ALKATE JAUNA:** Benetan esango dut Iosuren haserrea… ulertzen dut haserretzen dela egia entzuten duenean, eta horrek mintzen diola, eta hau ez baldin bada debate politikoetarako gunea, ez dakit zertarako gune den. Hona ez gatoz bakarrik bozkatzera, eta hemen hitz egiten da erreglamento batetaz gauza batzuetarako, eta, barkatu esatea, baino udalbatza areto hau eta osoko bilkura hauek debate politikorako guneak dira, es que zerbait baldin badaukate eremu hauek debate politikorako gune direla da. Formetan, Iosu, aktak irakurtzen

**EL SR ALCALDE:** Digo sinceramente que el enfado de Iosu… entiendo que se enfade cuando se le dice la verdad, y eso le ofende, y si esto no es un espacio para debates políticos, no sé para qué es. Aquí no venimos únicamente a votar, aquí se habla de un reglamento para algunas cosas y, disculpa, pero esta sala de la corporación y estos plenos son espacios para el debate político; es que si son algo estos espacios es que son un espacio para el debate político. En las formas, Iosu, has leído las actas, pero no has terminado; a mí me

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

dituzun bezala, ez duzu bukatu, niri gustatuko litzaidake jarraipena ere irakurriko bazenu, zeren oso interesgarria da, nire iritzirako… zuk irakurri duzun hori da, nik gaur esan dudan berdin-berdina. Hau da, apirilean esan nuen gauza berdin-berdina esan dut gaur, eta errepikatzen ari naiz behin eta berriro.

gustaría que leyeras también la continuación, porque es muy interesante, en mi opinión... lo que tú has leído, es lo mismo que yo he dicho hoy. Es decir, hoy he dicho lo mismo que dije en abril y lo estoy repitiendo una y otra vez..

Aipatzen da hemen, apirilaren 17an egindako batzordearen bi egun lehenagotik bidali zela dokumentazioa. Noski, bi egun lehenagotik bidali zen dokumentazioa. Astebete lehenagotik eman zen batzordean bertan informazio guzti hau. Debatitzen egondu ginen batzordean, urriaren 10eko,ez banago oker, batzordean, debatitzen egondu ginen gaur hitz egiten ari garen guzti honetaz. Debatitzen…bueno, aktan ere jasota dago eta, akta badaukagu guztiok ere, hitz egiten egon ginen, eta gainera zuen galderari erantzunez eman zen informazio zabal bat, hain justu. Eta formez hitz egiten ari garela, alderdi bateko kidea ez zegoen bertan, jakinarazi ez zuelarik ez zela etorri, eta zergatik ezin zuen etorri. Eta hala eta guztiz ere ni bi aldiz egondu naiz, Iosu, zure bulegoan ate joka, goiz batean eta arratsalde batean, batzorde horretan hitz egin zenaz hitz egiteko, eta ez zintudan topatu. Bi aldiz joan naiz zure bulegora azalpenak ematera. Zu nirera ez zara etorri galdetzera nondik ari ginen lanketa egiten.

Aquí se menciona que la documentación se envió dos días antes de la comisión realizada el 17 de abril. Evidentemente, la documentación se envió dos días antes. Con una semana de antelación se dio toda esta información en la propia comisión. Estuvimos debatiendo en la comisión, el 10 de octubre, si no me equivoco, en la comisión, estuvimos debatiendo de todo lo que estamos hablando hoy. Debatimos... bueno también consta en el acta y, todas y todos disponemos del acta; estuvimos hablando, y además se proporcionó una amplia información en respuesta a vuestra pregunta, precisamente. Y hablando de las de formas, he de decir que no asistió el miembro de un partido, sin que informara de su ausencia. Y a pesar de todo yo he estado dos veces, Iosu, en tu despacho tocando la puerta, una mañana y una tarde, para hablar de lo que se habló en esa comisión y no te encontré. He acudido dos veces a tu oficina para darte explicaciones. Tú no has venido a preguntarme sobre lo que habíamos tratado.

Baina hala eta guztiz ere, eta zuek esan duzue, apirilaren 18tik ekainaren 30arte eman zen epea, eta Alderdi Sozialistak bere proposamena erregistratu du urriaren 15ean. Urriaren 15ean erregistratu du Alderdi Sozialistak bere proposamena. Eta esaten du Gobernu Taldearenak ez zaiola balio, baina bereak urriaren 15ean, hau da, dokumentazioa jaso zenuen egun berdin-berdinean erregistratu duzu zuk zure proposamena.

A pesar de ello, y lo habéis dicho vosotros, el plazo fue del 18 de abril al 30 de junio y el Partido Socialista ha registrado su propuesta el 15 de octubre. El 15 de octubre el Partido Socialista registra su propuesta. Y dice que no le vale la del Equipo de Gobierno, pero ha registrado su propuesta el mismo día 15 de octubre, es decir, el mismo día en que recibió la documentación.

Eta formez ari baldin bagara, bakoitzak bere buruari begiratu beharko dio, baina ezin dena esan da gobernu taldeak egiten duenak ez duela balio, eta norberak egun berdin-berdinean egitea. Eta gaur dugu urriaren 24a.

Y si hablamos de formas, cada uno tiene que mirarse a sí mismo, pero lo que no se puede decir es que lo que hace el equipo de gobierno no vale y que luego uno lo presente el mismo día. Y hoy estamos a 24 de octubre.

Eta jada, proposamen zehatzez, urriaren hamarretik hitz egiten ari gara batzordeetan urriaren 10eko batzordean… urriaren 17ko batzordean, eta gaurko udalbatzan. Hori baldin bada ez egitea ezer, bada…

Y ya, sobre propuestas concretas estamos hablando en las comisiones desde el 10 de octubre, en la comisión del 17 de octubre, y en el Pleno de hoy. Si eso es no hacer nada, pues... ese es vuestro



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

hori da zuen ikuspegia. Baina berriro errepikatuko dut, epea zabalik egon da apirilaz geroztik, proposamenak mahai gainean jartzeko, jaso ditugun heinean proposamenak, txertatu ahal izan direnak, bai Abotsanitzen izenetik, aurkeztu zen… izan da, uste dut ekainaren 28an, EH Bildutik ere uste dut aurreraxeago aurkeztu zen, eta jaso ziren ahal ziren eta jaso genitzakeen ikuspegiak, ulertzen genituenak partekatu genitzakeenak. PSE-EEren urriaren 15eko proposamenetik jaso dira ere ikusten direnak partekatu daitezkeenak, jo…esatea ez dela aintzat hartzen eta ez dela entzuten eta gardentasun falta dagoela…bada…nik ez dut partekatzen, nahiz eta haserretu eta hemen horretarako hitz egiteko aukera daukagu guztiok, libreki.

punto de vista. Pero volveré a repetir, el plazo ha estado abierto desde abril para poner las propuestas encima de la mesa, propuestas que hemos ido incorporando a medida que las hemos ido recibiendo, tanto de Abotsanitz, que presentó... ha sido, creo que el 28 de junio, como de EH Bildu, que presentó un poco más adelante, y se recogieron los puntos de vista posibles, que entendíamos que podíamos compartir. De la propuesta del PSE-EE del 15 de octubre también se han recogido las que hemos visto que se pueden compartir, y jo…... decir que no se tiene en cuenta y que no se escucha y que hay falta de transparencia... pues... yo no lo comparto, aunque nos enfademos, todas y todos tenemos la oportunidad para ello libremente aquí.

Orain jada bozkatzera pasako gara bosgarren puntu hau.

Ahora ya pasamos a votar este quinto punto.

Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamenaren aldeko bozkak? Aurkakoak? Gehiengoz onartuta.

¿Votos a favor de la propuesta de modificación de las ordenanzas fiscales? ¿En contra? Aprobado por mayoría.

Idazkari jauna, jasota? Eskerrik asko.

¿Sr. secretario, recibido? Gracias.

**NORTASUNA SENDOTZEKO BATZORDEA**

**COMISIÓN FORTALECIMIENTO DE LA IDENTIDAD**

**6.-HONDARRIBIA SORMEN HIRIA, SORMEN ARTISTIKOA SUSTATZEKO BEKA LEHIAKETAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

**6.-HONDARRIBIA SORMEN HIRIA, PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS DEL CONCURSO DE BECA PARA EL FOMENTO DE LA CREACIÓN ARTÍSTICA.**

“Hondarribia Sormen Hiria” sormen artistikoa sustatzeko beka lehiaketaren oinarri arautzaileak onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación de las bases reguladoras del concurso de beca para el fomento de la creación artística “Hondarribia Sormen Hiria”.

2024ko urriaren 17ko Nortasuna Sendotzeko batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Fortalecimiento de la Identidad de 17 de octubre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5) eta EH Bildu (2).
Aurkako botoak: 1, PSE-EE-PSOE.

Votos a favor: 14, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5) y EH Bildu (2).
Votos en contra: 1, PSE-EE-PSOE.



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** aldeko legezko gehiengo osoz, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-** "Hondarribia Sormen Hiria" sormen artistikoa sustatzeko beka lehiaketaren oinarri arautzaileak onartzea, ondorengo moldaketak gehituta:

*Hizkuntza erabiltzen den proiektuetan euskara lehenestea, ondorengo parrafoak gehituz: "Euskararen aldeko jarrera proaktiboa duten proiektuak" eta "onuradunen betebeharra izango da Hondarribian euskararen erabilera normalizatzeko Udal-Ordenantza betetzea".

*Oinarrietan aldaketa sustantzialik suposatzen ez duten moldaketak onartzeko, alkate dekretu bidez oinarriak aldatu ahal izango dira: "Alkateak, dagozkion txosten teknikoak egin ondoren, oinarri arautzaile hauetan funtsezkoak ez diren aldaketak sartu ahal izango ditu dekretu bidez, justifikatutako arrazoiak daudenean eta horrek dirulaguntzak normal esleitzea eragozten edo oztopatzen duenean".

**BIGARREN.-** Aurreko erabakia hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, dagozkion erreklamazio edo oharpideak aurkez ditzaten.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Seigarren puntura pasako gara, beraz, "Hondarribia sormen hiria" sormen artistikoa sustatzeko beka lehiaketaren oinarri arautzaileak onartzeko proposamenari dagokiona da, eta Ortziri emango diot hitza.

**ALONSO JAUNA:** Aupa, arratsalde on. Eskerrik asko guztioi. Bueno, bagoaz aurrera, eta nik, pixkat, egia esaten badizuet, nahiko nuke gauzak nahasi gabe, baina nolabaiteko lotura egin, diru-bilketaz

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría absoluta legal favorable, **ACUERDA:**

**PRIMERO.-** Aprobar las bases reguladoras del concurso de beca para el fomento de la creación artística "Hondarribia Sormen Hiria", añadiendo las siguientes matizaciones:

*Se priorizará el uso del euskera en los proyectos en los que se utiliza un idioma, introduciendo los siguientes párrafos: "Proyectos con actitud proactiva a favor del euskera" y "Los beneficiarios deberán cumplir la Ordenanza Municipal para la normalización del uso del euskera en Hondarribia".

*Las bases podrán ser modificadas por Decreto de Alcaldía para la aprobación de modificaciones no sustanciales en las bases: "El Alcalde, previos los informes técnicos pertinentes, mediante Decreto podrá introducir modificaciones no sustanciales a las presentes bases reguladoras cuando concurran causas justificadas que imposibiliten u obstaculicen la normal adjudicación de las subvenciones".

**SEGUNDO.-** Someter a información pública, por plazo de treinta días hábiles, el acuerdo precedente a efectos de reclamaciones u observaciones que pudieran producirse.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Pasamos al punto sexto, correspondiente a la propuesta de aprobación de las bases reguladoras del concurso de becas para el fomento de la creación artística "Hondarribia Sormen Hiria", y cedo la palabra a Ortzi.

**EL SR ALONSO:** Aupa, buenas tardes. Muchas gracias a todas y todos. Bueno, pues vamos adelante, y yo, aunque os digo la verdad, quisiera relacionar los temas, pero sin mezclar las cosas.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

hitz egiten ari gara, eta oraingo puntu honetan ekartzen duguna da nolabaiteko bekaren proposamen bat. Eta bai esan nahiko nuke, eta gauzak nahasi gabe, eta aurrera jarraitzen dugu, baina agerikoa baldin bada ere, hemen behin eta berriro udal gobernu hau kolore ilunez edo beltzez margotu nahi baduzue ere, argi daukaguna da Hondarribia sormen herri bat dela, eta hemen ekartzen dugun…udal gobernu honek ekartzen duen planteamendua da kolore bizi eta kolore askotariko proiektuak, eta hauxe bera adibide xume eta sinple bat. Bai?

Estamos hablando de recaudación, y en este punto lo que traemos es una propuesta de beca. Y sí que quisiera decir, sin mezclar las cosas, que seguimos adelante, pero si bien es evidente que aquí insistís en pintar este gobierno municipal de color oscuro o negro, lo que tenemos claro es que Hondarribia es un pueblo creativo, y lo que aquí traemos... este gobierno municipal trae un planteamiento de proyectos de colores vivos y de colores diversos, y éste es un ejemplo simple y sencillo. ¿Sí?

Jakina bada ere kulturgintzan, kulturan kultur programazioan bagabiltzala, gure programan jasotzen genuen, gure agintaldi planean jasotzen genuen bezala, sormen bekak aktibatu nahi genuen, jakin badakigu urte luzez deialdia egin gabe egondu dela, 2011n esango nuke azkena, eta  nolabait ahanzturan edo hor gordeta izan den deialdia berreskuratu dugu, eguneratu dugu, eta hori da ikusten duguna, ez? batetik jakina da urte luzez, eta gaur egun daukagun kultur eskaintza gure herrian zabala dela, gauza eder asko eskaintzen ditugu, beste gauza batzuk ere zuzentzekoak baditugu, kontziente gara, bidean gaude, eta hobetzeko nahiarekin, behin eta berriro esan dugu, eta horretan bagabiltza, hori ziur, eta ikusten genuen atal bat erabat… esan dudan bezala ahanzturan genuena, daukaguna, da herrian daukagun potentzialitate bat, eta da herri sortzaileak, ez? Jakin badakigu, eta izen esanguratsuak baditugu ere, gure herrian, Bidasoa eskualdean bertan, sormen herri bat izandu dela, eskualde bat, izen esanguratsuak badauzkagu, Mendiburu bat, zer esanik ez, pasa den…bueno hilabete honetan egin dugun Nestor Basterretxea jaio zela 100. urtemugan eta nolabaiteko ziklo filmografiaren ziklo bat bete berri du Hondarribian, baina badaude itzalean dauden beste herritar asko, gazte asko, eta Hondarribia izandu da, eta gaur egun ere bada potentzial bat sormenari dagokionez, arteari dagokionez.

Hablamos de cultura, estamos trabajando en la programación cultural, en nuestro programa, tal y como lo recogíamos en nuestro plan de mandato; queríamos activar las becas de creatividad. Somos conscientes de que durante muchos años no se han convocado, de que la última vez fue en el 2011, diría yo,  y hemos recuperado, actualizado la convocatoria que de alguna manera se había olvidado o guardado, y eso es lo que vemos, ¿no?, por un lado, es sabido que la oferta cultural que tenemos hoy en día es amplia en nuestra ciudad, ofrecemos muchas cosas hermosas, también tenemos otras que corregir, somos conscientes, estamos en el camino, y con el deseo de mejorar; lo hemos reiterado, y en ello estamos, eso seguro. Y veíamos un apartado totalmente... como he dicho, olvidado: una potencialidad que tenemos en la ciudad, y es que es una ciudad creativa, ¿no? Somos conscientes, y tenemos nombres significativos, de que nuestra ciudad, la comarca del Bidasoa, ha sido una ciudad creativa, una región. Tenemos nombres significativos, un Mendiburu, y qué decir, el 100 aniversario del nacimiento de Nestor Basterretxea celebrado este mes con un ciclo filmográfico realizado en Hondarribia. Pero hay otras y otros muchos ciudadanos en la sombra, muchas y muchos jóvenes, y Hondarribia ha sido y sigue siendo un potencial creativo, artístico.

Eta besterik ez, gu gatozena da ahalbidetzera, herrigintzatik gatozenez, badakigu zein den tenperatura, egonak gara kontaktuan jardunaldi batzuetan, eta sorpresaz hartu genuen duela urteak sormenari dagokion deialdian parte hartu zuen jende zabalak eta askotarikoak, ez? Eta bueno, esan bezala, orain ekartzen duguna batzordean hitz egin izan dugun bezala, bidea egiten ari gara, ez daukat

Y nada más, nuestra intención es dar vía libre a la creatividad, al partir del trabajo a favor de la ciudadanía sabemos cuál es la temperatura, hemos estado en contacto en unas jornadas, y nos ha sorprendido la diversidad y la cantidad de personas que participó en la convocatoria de creatividad, ¿no? Y bueno, como hemos dicho, lo que ahora traemos, tal y como hemos hablado en la

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

inongo zalantzarik hanka sartzen badugu eta ekibokatzen bagara, zuzenduko dugula eta aurrera egingo dugula. Baina argi daukaguna da gai hau abordatu behar dugula, aurkeztu genituen oinarriak, egia da partekatu genituela gainontzeko taldeekin, eta nolabaiteko zuzenketak eta aportazioak jaso eta osatu dugula oinarri oso bat, bideak esango du ze erantzuna daukan, betetzen badu… erantzun ona baldin badauka horrela jarraituko du, aldatu behar baldin bada, egokitu behar baldin bada egokituko da, baina bueno, esandakoa, hona ekartzen dugu beka lehiaketen oinarri arautzailea onartzeko proposamena, eta nire aldetik eskerrak eman, eta…ari gara.

comisión… estamos caminando, no tengo ninguna duda de que si metemos la pata y nos equivocamos, vamos a corregirlo y vamos a avanzar. Pero lo que tenemos claro es que tenemos que abordar este tema, que hemos presentado las bases, y las hemos compartido con el resto de los grupos y que hemos recogido aportaciones y hemos completado unas bases completas. El camino dirá qué respuesta tiene, si cumple las expectativas... si tiene buena respuesta; si hay que cambiarlas se adaptarán, pero bueno, lo dicho, traemos aquí la propuesta de aprobación de las bases reguladoras del concursos de becas, y por mi parte damos las gracias, y estamos en ello...

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko, Ortzi. Hitza hartzerik? Gonzalo?

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias, Ortzi. ¿Alguna intervención? ¿Gonzalo?

**CARRION JAUNA:** Bai, Igor, mila esker. Bai, Ortzi, eskerrik asko. Pozten gaitu, batez ere ekimen hau berriz ere martxan jartzeak, eta ere pozten gaitu adierazteak hanka sartzen badugu, aterako dugu eta aurrera begiratuko dugu. Hori izan zen gure ekarpena, proiektu honetan hori gertatzen baldin bazen errazteko ordenantza eta beka horren emateko aldaketa txiki horiek, eta gure aldetik gure bozka aldekoa izango da proiektu honetan, zeren proiektu honetan eta pertsona hauek batez ere izatea bere lekua gure hiri honetan.

**EL SR CARRIÓN:** Sí, Igor, muchas gracias. Sí, Ortzi, muchas gracias. Nos alegra, sobre todo que se vuelva a poner en marcha esta iniciativa, y nos alegra también que digas que si nos equivocamos, lo arreglaremos y que miraremos hacia delante. Esa fue nuestra aportación, que si se materializaba facilitaríamos el proceso para esas ordenanzas y los cambios en la concesión de esta beca, y por nuestra parte nuestro voto será favorable a este proyecto, para que este proyecto y sobre todo estas personas tengan su lugar en nuestra ciudad.

**ALKATE JAUNA:** Besterik? Iosu?

**EL SR ALCALDE:** ¿Alguien más? ¿Iosu?

**ALVAREZ JAUNA:** Bai. Bueno, gure aldetik, komisioan nik bozkatu nuen aldekoa, baina gero modifikazio batzuk izan dira, egia esan ez ditudanak ondo ikusten…egia esan… nik oro har planteatu nuen hamar urte asko iruditzen zitzaizkidala, bost urte…eta gero ez zait idazkera gustatzen…idazketaren zatian euskarari buruz hitz egiten denean, euskararen erabilera hizkuntza erabiltzen den proiektuetan, paragrafo bat sartuz…ni horretan ez nago ados, ados nago ordenantzarekin, ordenantza aplikatzearekin, baina beste zatiarekin ez, aldeak ikusten ditut, beraz guk aurka bozkatuko dugu.

**EL SR ALVAREZ:** Sí. Bueno, por nuestra parte, yo voté a favor en la comisión, pero luego se han producido algunas modificaciones, que no tengo…la verdad es que no… a ver, yo con el conjunto hice el planteamiento de que los diez años me parecían mucho a cinco años, y luego no me gusta la redacción…lo que en la parte en la redacción, cuando se habla sobre tema del euskera, que se prioriza el uso del euskera en los proyectos en los que se utiliza el idioma introduciendo el siguiente párrafo, yo aquí…en fin, estoy de acuerdo con el tema de la ordenanza, me parece muy bien que se aplique la ordenanza, pero con la otra parte no…en fin, le veo sus diferencias, por lo cual nosotros votaremos en contra.

**ALKATE JAUNA:** Oso ondo, eskerrik asko, beste hitza hartzerik? Ez?

**EL SR ALCALDE:** ¿Muy bien, muchas gracias, alguna otra intervención? ¿No?

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Bozkatzera pasako gara, beraz, Hondarribiko sormen hiria sormen artistikoa sustatzeko beka lehiaketaren oinarri arautzaileak onartzeko proposamenaren aldeko bozkak? Kontrakoak? Gehiengoz onartua.

¿Pasamos, por tanto, a votar la propuesta de aprobación de las bases reguladoras del concurso de becas para el fomento de la creación artística en la ciudad creativa de Hondarribia? ¿Votos a favor?¿En contra? Aprobado por mayoría.

Itzaliko duzu mikrofonoa, Iosu, mesedez?

Por favor, ¿apagas el micrófono, Iosu?

**7.-GABARRA DOHAINTZAN JASOTZEKO ONARPEN PROPOSAMENA ETA HAPOKO KATALOGOAN SARTZEKOA.**

**7.-PROPUESTA DE APROBACIÓN PARA RECIBIR UNA GABARRA EN DONACIÓN Y SU INCLUSIÓN EN EL CATÁLOGO DEL PGOU.**

Gabarra dohaintzan jasotzeko onarpen proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren, eta HAPOko katalogoan sartzekoa.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación para recibir una gabarra en donación y su inclusión en el catálogo del PGOU.

2024ko urriaren 17ko Nortasuna Sendotzeko batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Fortalecimiento de la Identidad de 17 de octubre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (2).

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Onartzea Telmo Bratos Olasagasti jaunak Hondarribiko Udalari emandako dohaintza, San Joaquín izeneko egurrezko gabarrarena, zeina Pasaiako Kapitaintzan inskribatuta baitago 2012ko irailaren 11ko 13. folioan.

**PRIMERO.-** Aceptar la donación ofrecida al Ayuntamiento de Hondarribia por D. Telmo Bratos Olasagasti de la gabarra de madera denominada San Joaquín e inscrita en la Capitanía de Pasajes folio nº 13 de 11 de septiembre de 2012.

**BIGARREN.-** San Joaquín gabarra oinarrizko babesa duen kultura-intereseko ondasun deklaratzea, eta, horretarako, Hondarribiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko kultura-intereseko ondasun higigarrien katalogoan sartzea.

**SEGUNDO.-** Declarar la gabarra San Joaquín Bien de interés cultural de protección básica, y se proceda para ese fin a su incorporación al catálogo de bienes muebles de interés cultural del Plan General de Ordenación Urbana de Hondarribia.

**HIRUGARREN.-** Alkate jaunari ahalmena ematea erabaki hau behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren izapideak egin ditzan.

**TERCERO.-** Facultar al Sr alcalde para realizar los trámites necesarios para la debida ejecución del presente acuerdo.

**LAUGARREN.-** Era berean, ondasunen eta eskubideen udal-inbentarioan jaso dadila.

**CUARTO.-** Asimismo, se tome nota en el Inventario municipal de bienes y derechos.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

**BOSGARREN.-** Erabaki hau emaileari jakinaraztea.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Zazpigarren puntura pasako gara, beraz, aurrera egingo dugu, eta gabarra dohaintzan jasotzeko onarpen proposamena eta HAPOko katalogoan sartzekoari dagokiona. Ortzi, zuri emango dizut hitza ere, mesedez.

**ALONSO JAUNA:** Bai, eskerrik asko. Bueno, beste gai bat, honetaz ere hitz egin izan dugu, eta oraingoan ekartzen duguna da ofizialki batzordetik pasata baldin bada ere, egin beharreko beste pausu bat, eta da udalbatzatik pasatzea eta gabarraren dohaintza edo onartzea, eta ofizialki pasatzea gabarra udalaren eskuetara, ez?

Bueno, batetik lehenik eta behin, egia esan eskertu nahi dut Olasagasti familiari, sendiei, beraiekin kontaktuan jarri ginen joan den urteko irailean, denok dakizuen bezala, lehenagoatik bide bat edukita ikusi genuen nola hondoratuta bazegoen ordurako gabarra hau, eta pentsatu genuen bai edo bai jardun beharra zela, beraiekin kontaktuan jarri eta beraiek ere pentsatzen bertan bukatuko zuela gabarra horrek, oso eskertuak adierazi dira, denbora lerro honetan, eta gure aldetik argi daukaguna da… eta gure bidea ere…eta agintaldi planean agertzen den bezala da itsas ondarearen berreskuratze lanak egitea. Jakin badakigu, eta hortaz ere hitz egin dugu batzordean ere bai zer suposatzen duen nolabaiteko holako elementuak udalak bereganatzea, bai? Zeren orain izan eta etorkizun baterako udalaren jabe parte izango da, udala jabe izango da, eta udalaren ardura izango da Hondarribikoa den itsas ondare hori bermatzea eta izatea, ez? eta bereziki horretara goaz. Es que hori da gure apustua, eta pentsatzen dugu berebizikoa dela herrian ditugun holako elementuak mantentzea bertan. Zeren jakin badakigu badauzkagula inguruan, eskualdean, bestelako itsas elementu batzuk, bai? Aldundiaren jabe depositoetan, Gordailun, beste asko herritik kanpo, eta horren ederra den eta goraipatzen dugun gure herri honetako elementu asko eta asko, batzuk behintzat, herritik kanpo topatzen ditugu, itsas ondareari lotuta dauzkagunak ere bai. Eta orduan gure ahaleginak, gure lana eta apustua da halako elementuak bertan geratzea eta udalaren arduraz zaintzea eta ezagutaraztea, ez?

**QUINTO.-** Notificar el presente acuerdo al donante.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Pasamos al séptimo punto, por lo que seguiremos avanzando, correspondiente a la propuesta de aceptación de la donación de gabarra y su inclusión en el catálogo del PGOU. Ortzi, te cedo de nuevo la palabra, por favor...

**EL SR ALONSO:** Sí, muchas gracias. Bueno, otro tema, también hemos hablado de esto, y en esta ocasión lo que traemos es que, aunque haya pasado oficialmente por comisión, hay que dar un paso más y pasar por el Pleno, y consiste en la aceptación de la donación de la gabarra, para que pase oficialmente a manos del Ayuntamiento, ¿no?

Bueno, en primer lugar, quiero mostrar mi agradecimiento sinceramente a la familia Olasagasti, a sus miembros, que nos pusimos en contacto con ellos y ellas en septiembre del año pasado; como todos sabéis, iniciamos el camino antes, vimos cómo esta gabarra estaba hundida y pensábamos que había que actuar, ponernos en contacto con la familia, la cual también pensaba que de seguir así la gabarra terminaría perdiéndose. Se ha mostrado muy agradecida durante este tiempo, y lo que tenemos en cuenta por nuestra parte…y lo que es nuestra labor…tal y como está reflejado en el plan de mandato, consiste en la recuperación de dicho patrimonio marítimo. Ya sabemos, y por tanto lado también lo hemos hablado en la comisión, qué supone que el ayuntamiento adquiera este tipo de elementos. Porque ahora y en el futuro el ayuntamiento será su titular, va a ser parte del ayuntamiento y el ayuntamiento va a ser el encargado de garantizar y mantener ese patrimonio marítimo que es de Hondarribia, ¿no? y sobre todo vamos a eso. Esta es nuestra apuesta y pensamos que es vital mantener los elementos de nuestra ciudad. ¿Qué sabemos de la existencia de otros elementos marítimos en el entorno, en la región? Los hay en los depósitos de propiedad de la Diputación, en Gordailua, otros muchos fuera de la ciudad, y muchos de los elementos de nuestra ciudad tan hermosos y ensalzados los encontramos, al menos algunos, fuera de la ciudad, incluso los que tenemos vinculados al patrimonio marítimo. Y



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

entonces, nuestros esfuerzos, nuestro trabajo y nuestra apuesta es que esos elementos se queden aquí, cuidarlos y darlos a conocer es responsabilidad municipal, ¿no?

Esan da, familiari eskerrak, eskertu dut ere bai udal langile eta teknikariek egin duten lana, nola ez, eta bueno badakizue 2024ko maiatzean egin genituela itsas topaketak Hondarribiko lehenengo itsas ondareko topaketa, itsas herria ekimena, jaialdia, eta bertan ere txertatu genuen gabarraren arloa edo gaia, ez? Gure asmoa bide honetan da gabarra jaso, berreskuratu, kokatu eta nolabaiteko dibulgazio lana egin bai inguruko eskola, herritar eta bisitarientzako, ez? baina, nolabait, bere garaian horren garrantzitsua izan zen gabarra bai Hondarribian eta Bidasoa eskualdean bada…bere lekua izan dezan. Eta berriz esango dut, ahanzturan ez dadila erori, eta hori da gure apustua. Orduan, besterik gabe. Orain tokatzen zaiguna da dohaintza hau bozkatzea, eta nola ez, bidean jarraituko dugu lanean.

Tal y como he dicho, quiero mostrar mi agradecimiento a la familia, también agradezco el trabajo realizado por el personal y las y los técnicos municipales, y bueno… como sabéis en mayo de 2024 celebramos el primer encuentro de patrimonio marítimo de Hondarribia, la iniciativa ciudad marítima, el festival, y en él también incluimos el área o el tema de la gabarra, ¿no? Nuestra intención es recoger, recuperar, ubicar y realizar algún tipo de divulgación de la gabarra, tanto para las escuelas, como para la ciudadanía y las y los visitantes de la zona, ¿no?, al haber sido de alguna manera tan importante en su momento la gabarra en Hondarribia y en la comarca del Bidasoa... que tenga su sitio. Y repito, que no se caiga en el olvido… y esa es nuestra apuesta. Entonces, sin más. Lo que nos toca ahora es votar esta donación y como no, seguiremos trabajando.

**ALKATE JAUNA:** Hitza hartzerik? Gonzalo?

**EL SR ALCALDE:** ¿Alguna intervención? ¿Gonzalo?

**CARRION JAUNA:** Bai, mila esker, Igor, Ortzi, mila esker. Behin eta berriz esan dut proiektu hauekin bidelagun izango garela, beti alde egingo dugula, batez ere gure ondarea gure herrian gelditu dezan. Orduan, bai honekin, eta itsasontzia, Alde Zaharra edo mendian edo baserrietan dauden ondare guztiak gure babesa izango duzue, eta ea elkarrekin lantzen ditugun.

**EL SR CARRION:** Sí, muchas gracias, Igor, Ortzi, muchas gracias. Insisto en que acompañaremos este tipo de proyectos, siempre votaremos a favor, sobre todo para que nuestro patrimonio quede en nuestra ciudad. Entonces, tanto en esto, como en el barco, la Parte Vieja o en todos los bienes que hay en el monte o en los caseríos, tenéis nuestro apoyo, y a ver si trabajamos juntos.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko, beste hitza hartzerik? Iosu?

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias. ¿Alguna otra intervención, Iosu?

**ALVAREZ JAUNA:** Bai. Gure aldetik adostasuna, nik uste dut horrelako proiektuek nortasuna sendotzen dutela, eta, azkenean, beti da garrantzitsua iragana zer den jakitea, eta gabarra-proiektua, eta agian... beste zerbait badago, ondo dagoena, nik uste dut horrelako proiektuak positiboak direla, batez ere udalaren ikuspuntutik, eta, batez ere, herritarrentzat, nolabait babestu ahal ditugulako. Espero dut gauzak funtzionatzea, gabarra berreskuratzea, eta nolabait ikusteko moduko toki batean eta baldintza egokietan jarri

**EL SR ALVAREZ:** Sí, por nuestra parte de acuerdo. Yo creo que este tipo de proyectos consolida la personalidad, que al final en el futuro siempre es importante saber lo que es el pasado, y que el proyecto de gabarra, y quizás…si hay alguna cosa más, que está bien, yo creo que este tipo de proyectos son positivos, sobre todo desde el punto de vista municipal, y sobre todo para los ciudadanos, porque de alguna forma los podemos preservar. Espero que la cosa funcione, que esta gabarra se recupere, y que de alguna forma se

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

ahal izatea. Hala izatea espero dut.

pueda colocar en un sitio visible, y en condiciones. Espero que sea así.

**ALKATE JAUNA:** Beste hitza hartzerik? Ez? Bozketara pasako gara, zazpigarren puntua, gabarra dohaintzan jasotzeko onarpen proposamena eta HAPOko katalogoan sartzearen aldeko bozkak? Aho batez onartua.

**EL SR ALCALDE:** ¿Más intervenciones? ¿No? Pasaremos a votación, punto séptimo, ¿votos a favor de la propuesta de aceptación de la donación de la gabarra y de su inclusión en el catálogo del PGOU? Aprobado por unanimidad.

(Hondo-zarata)

(Ruido de fondo)

**ALKATE JAUNA:** Eta, denak ongi?

**EL SR ALCALDE:**¿Y, todos bien?

Denek baietz erantzun dute.

Todos/as responden que sí.

**HIRI ETA LURRALDE ANTOLAKETA BATZORDEA**

**COMISIÓN DE ORDENACIÓN URBANA Y TERRITORIAL**

**8.-IKASTETXE ETA UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ETA DESINFEKTATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEKO PROPOSAMENA.**

**8.-PROPUESTA DE PRÓRROGA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DE SERVICIO DE LIMPIEZA Y DESINFECCIÓN DE CENTROS ESCOLARES Y EDIFICIOS MUNICIPALES.**

Ikastetxe eta udal eraikinak garbitzeko eta desinfektatzeko zerbitzuaren kontratua luzatzeko onarpen proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de aprobación de la prórroga del contrato de prestación de servicio de limpieza y desinfección de centros escolares y edificios municipales.

2024ko urriaren 17ko Hiri eta Lurralde Antolaketa batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Ordenación Urbana y Territorial de 17 de octubre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (2).

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Hondarribiko ikastetxe eraikinak eta udal eraikinak garbitzeko eta desinfektatzeko zerbitzuaren kontratua – FACILITY SERVICES, S.A. - enpresarekin sinatua- beste urte batez luzatzea, baldintza administratiboen eta baldintza teknikoen pleguetan eta aurkeztutako eskaintzan ezarritako baldintzetan. Zerbitzuaren zenbatetsitako urteko gastua 814.158,85 € gehi %21eko BEZaren 170.973,36 € eurokoa da.

**PRIMERO.-** Prorrogar el contrato para la prestación del servicio servicio de limpieza y desinfección de centros escolares y edificios municipales del Ayuntamiento de Hondarribia, suscrito con la empresa ISS FACILITY SERVICES, S.A. por un año, en las condiciones establecidas en los pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas y en la oferta presentada. El precio del contrato anual es de 814.158,85 € más 170.973,36 €



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

correspondientes al 21% de IVA.

**BIGARREN.-** Akordio hau kontratistari jakinaraztea.

**SEGUNDO.-** Notificar el presente acuerdo al contratista.

**HIRUGARREN.-** Luzapena Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratzea.

**TERCERO.-** Publicar la prórroga en la Plataforma de Contratación de Euskadi.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Zortzigarren puntura pasako gara**,** ikastetxe eta udal eraikinak garbitzeko eta desinfektatzeko zerbitzuaren kontratua luzatzeko proposamenari dagokiona. Estitxu, mesedez?

**EL SR ALCALDE:** Pasamos al punto octavo, relativo a la propuesta de prórroga del contrato del servicio de limpieza y desinfección de los edificios escolares y municipales. Estitxu, ¿por favor?

**URTIZBEREA ANDREA:** Eskerrik asko, Igor. Arratsalde on guztioi. Hondarribiko Udalak 2021eko abenduan sinatu zuen kontratua Facility Services-arekin udal eraikinak eta ikastetxeak garbitzeko; kontratua urtebeterako zen, lau prorrogarekin. Ikusita jaso duzuela udal arkitekto teknikoaren txostena, non proposatzen den prorrogarekin jarraitzea, baita ere kontratazio eta ondareko teknikariaren txostena, zeinari idazkari jaunak oniritzia eman dion, eta kontu-hartzailearen txostena, non esaten den kontratazio organoa udalbatza dela, horregatik dakargu gaur hona. Badakigu aurrera begira doikuntza eta optimizazioa beharko duen kontratu bat dela, eta horretan jarriko gara, beraz horixe da ekartzen dena, prorroga eskatzea.

**LA SRA URTIZBEREA:** Muchas gracias, Igor. Buenas tardes a todas y todos. El contrato que el Ayuntamiento de Hondarribia suscribió en diciembre de 2021 con Facility Services para la limpieza de edificios y centros escolares municipales tenía una duración de un año, con cuatro prórrogas. A la vista de que habéis recibido el informe del/a arquitecto técnico municipal en el que se propone continuar con la prórroga, así como el informe del técnico de contratación y patrimonio, visado por el Sr. Secretario, y el informe del Interventor en el que se señala que el órgano de contratación es el Pleno, lo presentamos hoy aquí. Sabemos que es un contrato que va a necesitar ajuste y optimización para el futuro, y nos vamos a poner en ello. Entonces, lo que se trae es pedir el prorroga.

**ALKATE JAUNA:** Hitza hartzerik? Ez? Ados?

**EL SR ALCALDE:** ¿Alguna intervención? ¿No? ¿De acuerdo?

Bada…argi baldin badago, zortzigarren puntua bozkatzera pasako gara: Ikastetxe eta udal eraikinak garbitzeko eta desinfektatzeko zerbitzuaren kontratua luzatzearen alde? Aho batez onartua. Jasota?

Pues... si está claro, pasamos a votar el punto octavo: ¿votos a favor de la prórroga del contrato del servicio de limpieza y desinfección de los edificios escolares y municipales? Aprobado por unanimidad. ¿Recogido?

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

**9.-BIDASOA ESKUALDEKO OSPITALEKO OBRAK DIRELA-ETA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO INTERES OROKORREKO OBRA AITORTZEKO PROPOSAMENA.**

**9.-PROPUESTA DE DECLARACIÓN DE OBRA DE INTERÉS GENERAL PARA LA APLICACIÓN DE BONIFICACIÓN DEL 95% DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS EN RELACIÓN A EJECUCIÓN DE OBRAS EN EL HOSPITAL COMARCAL DEL BIDASOA.**

Bidasoa Eskualdeko Ospitaleko espedientea aztertu ondoren, erakineko obrak direla-eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren %95eko hobaria aplikatzeko interes orokorreko obra aitortzeko proposamenari dagokiona.

Examinado el expediente relativo a la propuesta de declaración de obra de interés general para la aplicación de bonificación del 95% del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras en relación a ejecución de obras en el Hospital Comarcal del Bidasoa.

2024ko urriaren 17ko Hiri eta Lurralde Antolaketa batzordearen diktamena ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Ordenación Urbana y Territorial de 17 de octubre de 2024.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Aldeko botoak: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (2).

Votos a favor: 15, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (5), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Interes berezikotzat jotzea Osakidetzak eskatutako obrak, Bidasoa Ospitaleko zuzendaritza eta administrazioa hartuko dituen solairu bakarreko behin-behineko eraikin bat egitekoak.

**PRIMERO.-**Considerar de especial interés las obras solicitadas por Osakidetza consistentes en la ejecución de un edificio provisional de una sola planta que albergará la dirección y administración del Hospital del Bidasoa.

**BIGARREN.-** Obra hauei EIOZren %95eko hobaria ematea, indarrean dagoen udal ordenantzako 18. artikuluan ezarritakoaren arabera

**SEGUNDO.-** Bonificar dichas obras en un 95% del ICIO en virtud de lo establecido en el art. 18 de la vigente ordenanza municipal.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

Intervenciones en relación al acuerdo:

**ALKATE JAUNA:** Bederatzigarren puntura pasako gara, Bidasoa eskualdeko ospitaleko obrak direla eta eraikuntza instalazio eta obren gaineko zergaren % 95eko hobaria aplikatzeko interes orokorreko obra aitortzeko proposamena. Estitxu, mesedez?

**EL SR ALCALDE:** Pasamos al punto noveno, la propuesta de declaración de obra de interés general para la aplicación de una bonificación del 95% en el Impuesto sobre Instalaciones y Obras de Construcción en relación con las obras del Hospital Comarcal del Bidasoa. Estitxu, ¿por favor?

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, Bueno, proiektu hau luzetik datorren proiektua da, denok ezagutzen dugu, nolabait erantzuten dio Bidasoako ospitaleak behar duen berrikuntza behar bati, eta bueno,

**LA SRA URTIZBEREA:** Si, Bueno, este proyecto es un proyecto que viene desde hace tiempo, que todos conocemos, que responde de alguna manera a una necesidad de innovación que



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

azkenean herritarren eskariei neurri batean erantzunez, bueno…iritsi gara gaurko egunean. Azkenean obra-lizentzia eman zaio ospitaleari, eta zertarako? Bada…nolabaiteko behin-behineko eraikin batzuk jartzeko, oraintxe bertan aparkalekua dagoen lekuan, atzeko aldean, eta hor asmoa da, eraikin horietara bulegoak eramatea, eta prezeski kirofanoek behar dituzten berrikuntza obrak libratzen den leku horretara eraman eta gero orain dauden lekuan obrak jarraitzeko. Hau da, ez dutela, lehen hasieran proposatzen zen bezala beste hiri edo beste ospitale batera joateko beharra, eta dena bertan egingo dela. Orduan lizentzia hau eman zitzaien, irailaren 23an, eta honelako kasuetan EIOZaren gaineko edo eraikuntza eta instalazioen gaineko zergen arauak ematen du aukera interes orokorreko edo udal onurako diren obretan hobaria eskatzekoa. Hobari hau % 95ekoa da, eta noski, ospitaleak hobariak eskatu du. Teknikoki eta politikoki iruditzen zaigu betetzen dituela kondizio horiek, eta beraz hori da hona dakarguna, ez? hobari hau onartzearen proposamena.

necesita el hospital del Bidasoa, y bueno, que al final, respondiendo en parte a las demandas de la ciudadanía, bueno... lo traemos hoy. Finalmente se ha concedido licencia de obras al hospital ¿y para qué? Pues... para que se instalen unos edificios provisionales en la zona actual del aparcamiento, en la parte trasera, a los cuales se pretende llevar las oficinas, y realizar expresamente las obras de reforma necesarias para los quirófanos en ese espacio que queda libre, y continuar las obras en la zona actual. Es decir, que no tienen la necesidad de trasladarse a otra ciudad o a otro hospital como se planteaba al principio, y que todo se llevará a cabo en él. Entonces, se les concedió la presente licencia el 23 de septiembre, y en estos casos la norma tributaria sobre el ICIO o sobre las construcciones e instalaciones permite solicitar bonificación en obras de interés general o utilidad municipal. Esta bonificación es del 95% y obviamente el hospital ha solicitado bonificaciones. Nos parece técnica y políticamente que cumple con esas condiciones, por lo la propuesta es que se apruebe esta bonificación.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Baloraziorik? Gonzalo?

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias. ¿Alguna valoración? ¿Gonzalo?

**CARRION JAUNA:** Bueno, balorazioa ez dut egingo, batez ere jakiteko gure bozka aldekoa izango da, interes publikorako obra bat dela, eta ikusirik azken hilabete hauetan bai Osakidetzako burua hona etorri dela, zuekin hitz egitera, bai Irungo alkatesarekin, zuekin han topatu dela baita ere, bildu dela, eta honi jada, behingoz, martxa eman zaio. Bulegoak 5. unitate hori, bulego hau den lekura jaitsi, kanpoan bulego administratibo berriak egin, eta bosgarren unitate horretan kirofanoan obra noizbait hasten diren, eta denon artean lortzen ditugun Osakidetzak dauzkan zerbitzu guzti horiek hobeak izatea. Mila esker.

**EL SR CARRIÓN:** Bueno, no voy a valorar, simplemente informar de que nuestro voto será favor, que es una obra de interés público, y que en los últimos meses el jefe de Osakidetza ha venido aquí a hablar tanto con vosotras y vosotros como con la alcaldesa de Irún, que os habéis reunido, y que finalmente se ha puesto en marcha el proyecto. Las oficinas, la 5ª unidad bajará al espacio que ocupan las oficinas, se establecerán en el exterior las nuevas oficinas administrativas, y veremos cuando comienzan las obras en esa quinta unidad, en el quirófano. A ver si logramos entre todas y todos que mejoren los servicios de Osakidetza. Muchas gracias.

**ALKATE JAUNA:** Eskerrik asko. Besterik?
Bada…ongi baderitzozue bederatzigarren puntuari dagokion Bidasoa eskualdeko ospitaleko obrak direla-eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren % 95eko hobaria aplikatzeko interes orokorreko obra aitortzaren alde?

**EL SR ALCALDE:** Muchas gracias. ¿Algo más?
Pues... si os parece bien, votos a favor de la declaración de obra de interés general para la aplicación de la bonificación del 95% del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras en relación con las obras del Hospital Comarcal del Bidasoa, correspondiente al punto noveno?

Aho batez onartua.

Aprobado por unanimidad



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

**GOBERNU ORGANOEN KONTROLA**

**10.-2024KO 2547. ZENBAKITIK 2874. ZENBAKIRA BITARTEKO ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

2024ko ekainaren 19ko 2547. zenbakitik urriaren 18ko 2874. zenbakira bitarteko dekretuen berri eman ondoren, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Hamargarren puntura pasako gara. Gobernu-organoen kontrolari dagokiona, 2024ko 2.547 zenbakitik 2.874 zenbakira bitarteko alkate dekretuen berri emateari dagokiona. Ez zait aurretik jakinarazi galderarik egongo denik, baina…ez dakit…Bai? Bada…aurrera.

**CARRION JAUNA:** Mila esker, Igor. Hemen bi dekretu dauzkat, bat uste dut jada lehenagotik erantzun duzula zure diskurtso horretan, luze horretan. 2.715a. Hondarribiko lorategiak kontserbatu eta mantentzeko zerbitzuaren prestazioa esleitzeko administrazio espedientea hastea eta onartzea. 2021eko plegua erabat ia-ia berdin-berdina % 98-99an, eta % 19 garestiagoa. Zergatik? Deigarria egiten zaigu, horregatik.

**ALKATE JAUNA:** Bai. Egia esan, gaur eduki dugun eztabaida eduki eta gero formetan, dekretu baten inguruan galdetzerakoan hirurehun eta piko dekreturen berri ematea dagoenean, eta gainera aurrez galdetu nizuenean bozeramaile batzordean ia galderarik eta dekretuen berri ematearen inguruan edo bazegoen zerbait, eta ez dakit, memoriaz, Gonzalo, bada…2.715. dekretua, bada… memoriaz esatea nekeza da.

Eta galdera idatzita ekarki zenuen horretan esaten badidazu udalbatza aurretik galdetuko duzula, prestatu dezaket, baina bueno, saiatuko naiz. Lorezainen dekretuari dagokionez, bueno, jakingo duzue lorezainen zerbitzuaren kontratazioa gatazkatsua izan zela, greba bat tarteko, denok bildu gara lorezainen ordezkariekin eta lorezainekin berekin ere, eta aipatzen ziguten nola…bi mila noizkoa esan duzu zela kontratua, hemeretzikoa, edo…hogeita batekoa? Bada 2021eko kontratazio

**CONTROL DE ÓRGANOS DE GOBIERNO**

**10.-DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA NÚMEROS DEL 2547 AL 2874 DE 2024.**

Dada cuenta de los Decretos de Alcaldía del nº 2547 de 19 de junio al nº 2874 de 18 de octubre de 2024, el Ayuntamiento Pleno queda enterado.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Pasamos al décimo punto. El relativo al control de los órganos de gobierno, relativo a la comunicación de los Decretos de Alcaldía del número 2.547 al 2.874 del 2024. No se me ha avisado de antemano de que haya preguntas pero... no se... ¿Sí? Pues... adelante.

**EL SR CARRIÓN:** Muchas gracias, Igor. Aquí tengo dos decretos, sobre uno de ellos creo que ya has respondido antes en ese largo discurso, es el 2.715. Iniciar y aprobar expediente administrativo para adjudicación de prestación de servicio de conservación y mantenimiento de jardines de Hondarribia. El pliego de 2021 es prácticamente idéntico, en un 98-99%, y es un 19% más caro. ¿Por qué? Nos llama la atención, por eso.

**EL SR ALCALDE:** Sí. Lo cierto es que después de haber tenido el debate que hemos tenido hoy en cuanto a las formas, teniendo en cuenta que al preguntar por un decreto se trata de uno entre trescientos, y que además antes os pregunté en la junta de portavoces si había preguntas en relación a la dación de cuentas de los decretos…, no sé, de memoria, Gonzalo, pues... el decreto 2.715 pues es difícil informar sobre él de memoria.

Y si al traer por escrito la pregunta me dices antes del Pleno que harás una pregunta sobre ello, podría prepararla, pero bueno, voy a intentarlo. En cuanto al decreto de las y los jardineros, bueno, sabréis que la contratación del servicio de jardinería fue conflictiva, hubo una huelga, todos nos hemos reunido también con los representantes de las y los jardineros y con ellos/as mismos/as, y nos decían cómo... ¿De qué año has dicho que era el contrato? De dos mil y…? ¿de 2019, o de 2021? Pues en la



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

horretan beraiek aipatzen dutena dela nola jaso ziren lan baldintza batzuk, eta kontratazioan jaso ziren konpentsatu egiten zirela KPIaren igoerak, eta 2021. urteaz geroztik ez dutela beraien lan baldintzak eguneratuak izan, greba bat egon zela, greba luzea, gogorra, iruditzen zait…2023ko udaran greban zeudelarik udal honek espediente zehatzaile bat ireki zion enpresari zerbitzua ez emateagatik, azkenean uda amaieran iritsi ziren akordio batetara hitzarmen bat sinatu zutena, hitzarmen horren aplikazio hau kontratua amaitzen zenerako indarraldian sartzen zen, plegu berri bat egin behar zela eta plegua, zerbitzuak ez dut uste arazo handiegirik dauzkanik, zerbitzuak berak, lan-baldintzak ziren aldatzen zirenak eta…edo aldatzea aldarrikatzen zutenak, eta zenbateko igoera esan duzu? ni memoriaz ez naiz oroitzen, zuk esan duzu…% 18a? 19a? Bueno, gutxi gorabehera. Eta KPIaren igoera 2021etik 2024 urte amaierara metaketa 21 ingurukoa da.

contratación del 2021 las y los propios jardineros mencionaban que se recogieron unas condiciones de trabajo y que en dicha contratación se recogió que se compensaban las subidas del IPC, y que desde el 2021 no se han actualizado sus condiciones de trabajo, que hubo una huelga, una larga y dura huelga, a mi parecer…y el verano del 2023 estando ellos/as en huelga este ayuntamiento abrió un expediente sancionador a la empresa por no prestar el servicio; finalmente al final del verano llegaron a un acuerdo a través de un convenio, este convenio entraba en vigor a la finalización del contrato. Había que hacer un nuevo pliego y el pliego, no creo que tuviera demasiados problemas, los mismos servicios, las condiciones laborales eran las que cambiaban, y...o las que se reivindicaba que cambiaran, y ¿has mencionado un aumento?, yo no me acuerdo de memoria, ¿has dicho... el 18%? 19? Bueno, más o menos. Y la acumulación del incremento del IPC entre 2021 y finales de 2024 ronda el 21.

Bada…hartu, hain erraza da hartzea kalkuluak 2021etik 2024ra eta hor dago aldaera zerbitzu baten kontratua amaitzearekin, hurrengo baten deialdia egiterakoan jaso beharrekoa. Eta horrek edukiko du bere bidea, izapidetu beharko da esleipen bat, aurkeztu beharko dira proposamenak, eta uste dut logikaren barruan sartzen dela, ez daukala beste munduko misteriorik, baina memoriaz esaten dizuedan azalpena hortik doa.

Pues... mira, es tan fácil hacer los cálculos desde el 2021 al 2024… y ahí está la variación al finalizar el contrato de un servicio, a la hora de convocar otro. Y eso tendrá su camino, habrá que tramitar una adjudicación, habrá que presentar propuestas y creo que está dentro de la lógica, que no tiene otro misterio, pero la explicación que les doy de memoria va por ahí.

**CARRION JAUNA:** Mila esker. Bada…hurrengoa izango zen 2.733 Udaleko egitura aurrefabrikatuak muntatu eta desmuntatzeko zerbitzua esleitzeko administrazio-espedientea hastea eta onartzea Bueno, tabladoak, karpak, aulkiak, mahaiak…

**EL SR CARRION:** Muchas gracias. El próximo sería el 2.733. Iniciar y aprobar expediente administrativo para la adjudicación de la prestación de servicio montaje y desmontaje de estructuras prefabricadas del ayuntamiento. Bueno, tablados, carpas, sillas, mesas…

Plegua ere antzeko parezido, %98, %99 2019koaren igual-iguala, baina…bueno, aldatzen dira inbentarioa, gauza gehiago daudelako, bai bailak, aulkiak mahai berriak badaudela, baina kasu honetan gastua % 1 igotzen da bakarrik, eta hori deigarria egiten zaigu, zeren KPIa 2019tik 2024ra %25 uste dut igo dela, ez 25 ez, 21 uste dut, eta orduan zergatik bati aplikatzen zaio igoera hori, eta besteari ez? Eskerrik asko.

El pliego también es parecido, el 98%, 99% exactamente igual al del 2019, pero... bueno, cambia el inventario porque hay más cosas, sí que hay vallas, sillas y mesas nuevas, pero en este caso el gasto sube sólo un 1%, y eso nos llama la atención porque el IPC de 2019 a 2024 creo que ha subido un 25%, no 25 no, creo que 21, y entonces ¿a uno se le aplica ese incremento y al otro no? Muchas gracias.

**ALKATE JAUNA:** Bada…ez dakit, uste dut zerbitzu honetan ez dagoela dekretu bat. Hainbat

**EL SR ALCALDE:** Pues... no sé, creo que sobre este servicio no hay un decreto. Hay varios



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

dekretu daude, izan ere espediente hasiera bat egin zen, espediente hori bertan behera utzi zen, teknikariek ikusten zuten zerbitzua beharrean obra izan behar zuela, beste azterketa bat egin zen, gero azkenean beste teknikariek ikusten zuten zerbitzua izan behar zuela…Egia esan momentu honetan, eta datu ekonomiko horiek ez ditut landu, ezin dizut orain horrela bota…badakidana da espediente hori landu dela, bueno...eta zuk ere badakizu, noski, zuk ere oso ongi badakizu espediente hori landu dela goitik, behetik, alde batetik eta bestetik, eta ez dakit kopuru osoan duen aldaketa % 1ekoa den, 3koa, 0,1 ekoa edo -2koa, baina aztertu dela zerbitzu horren beharrak goitik behera, hori dakit…bueno, hori dakizu zuk nik bezain ongi. Bai, ez da hala? Badakizula zuk nik bezain ongi. Ez da hala?

decretos, porque se abrió un expediente, se suspendió ese expediente, el personal técnico veía que debía ser obra y no servicio, se hizo un nuevo estudio, luego otros/as técnicos consideraban que tenía que ser un servicio... La verdad es que en este momento no he estudiado esos datos económicos, no lo puedo echar así... lo que sé es que se ha tratado ese expediente, bueno... y tú también lo sabes, claro, tú también sabes que ese expediente se ha tratado por arriba, por abajo, por un lado y por otro, y no sé si la variación en el total es del 1%, del 3, del 0,1 o del -2%, pero sí que se han analizado las necesidades de ese servicio de arriba abajo, eso sé... bueno, eso lo sabes tú igual que yo. Sí, ¿no es así? Que lo sabes al igual que yo. ¿No es así?

**CARRION JAUNA:** Zer?

**EL SR CARRION:** ¿Qué?

**ALKATE JAUNA:** Nola aztertu den…

**EL SR ALCALDE:** Cómo se ha estudiado…

**CARRION JAUNA:** Aztertu? Igual-iguala da…2019koa eta oraingoa…aldaketa txiki batzuk dauzka, nahi baduzu programazioa hartu, eta hor bertan ikusten da.

**EL SR CARRION:** ¿Qué se ha estudiado? Son exactamente iguales, el del 2019 y el actual…tiene unas pequeñas modificaciones, si quieres ten la programación, en ella se puede observar.

**ALKATE JAUNA:** Baina…ez dakit, e? baina nik orduan teknikariekin espediente hasiera egin zenean espedientea bertan behera utzi zenean, obra izan behar zuela, zerbitzua izan behar zuela, egon diren diskusio guzti honekin udaletxe honetan, eta atzeratu den guztiarekin zerbitzu honen kontratazioa…zeren aitortuko dut…gauza bat aitortuko dut, begira, Ortzik aipatu duenarekin lotura zuzena duena: kontratazioan…zuek sufritu zenuten…kontratazioan bizitzen ditugun egoerak, zailak egiten dira ulertzea. Kontratu bat esleipenera ateratzea kostatzen duena ni lanean ibili naizen nire bizitza osoan ez dut horrelakorik ikusi, eta kasu hau bada zailtasun handiak eragin dituen kontratazio bat, eta berandu goaz, ongi dakizun bezela berandu goaz. Orain, berdin-berdina dela bide honetan eduki dituen aldaera guztiak eta memoriaz ulertuko duzun bezala aldaera guztiak ezin ditut hemen aipatu, baina eduki dituen aldaera guztiak ezagututa, esatea berdin-berdina dela, hombre, es que hau hasi zen zerbitzu izatetik obra izatera, obra izatetik azkenean bukatu berriz zerbitzu izaten. Eduki dituen gorabehera guztiekin eta prozeduran izandako zailtasun guztiekin, nik ulertzen dut hemen parte

**EL SR ALCALDE:** Pero…no sé, ¿eh? pero yo entonces cuando se inició el expediente con el personal técnico, cuando se suspendió el expediente, que si debía ser obra, que si debía ser servicio, con toda la discusión que se ha suscitado en este ayuntamiento, y con todo lo que se ha retrasado la contratación de este servicio... porque reconozco... una cosa que tiene que ver directamente con lo que ha dicho Ortzi en la contratación... vosotros sufristeis... las situaciones que vivimos en la contratación, son difíciles de entender. Lo que cuesta llevar un contrato a la adjudicación no lo he visto yo a lo largo de mi vida en lo que llevo trabajando, y este es un caso de contratación que ha generado muchas dificultades, y vamos tarde, vamos tarde, y bien lo sabes. Ahora, que es exactamente igual, como entenderás no puedo referirme aquí de memoria a todas las variantes que ha tenido en esta andadura, pero, conociendo todas las variantes que ha tenido, decir que es exactamente lo mismo, hombre, es que esto empezó siendo un servicio para ser luego una obra, y de ser una obra a ser un servicio. Con todas las vicisitudes que ha tenido y las dificultades que ha

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

hartu duten teknikariak ugariak izan dira, poztekoa da behingoz, niretzat behintzat, kontratazio hau esleipenera atera eta behingoagatik espero dut kontratazioa modu egokian ateratzea eta kontratatzea, izan ere orain bizi dugun egoera ez dudalako inolaz ere gustuko, eta uste dut konpondu beharrekoa dela lehenbailehen.

**CARRION JAUNA:** Eskerrik asko.

**ALKATE JAUNA:** Dekretuen inguruan beste azalpenik behar? Bada…

**11.-ERREGU ETA GALDERAK.**

Alaitz Zabala Zarauz andrea bilkuratik 20:35ean atera da, Erregu eta Galderen puntuan.

Interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Pasako gara azkeneko puntura, erregu eta galderei dagokion puntura.

Hemen Alderdi Sozialistako kideek emailez pasa dizkidate oraingoan galdera sorta bat, beraz zuei emango dizuet hitza.

**ALVAREZ JAUNA:** Gonzalo, zuk ere galdetu behar duzu, ez da hala?

**CARRION JAUNA:** Zuri eman dizu hitza lehenbizi.

**ALKATE JAUNA:** Ez, barkatu, barkatu, Iosu argitzeko, argitzeko, ez diot kendu hitza inori, Iosu es que gaude erregu eta galderetan, eta ohikoa den bezala, posible zara jarri begiratzen ñir-ñir egiten begiekin, zure kideei nahi baduzu, baina ohikoa den bezala idatziz galderak sartzen dituztenei lehentasuna ematen zaio udalbatza honetan, beste udalbatza guztietan egin izan dugun bezala, eta horrelako harridura aurpegia jartzeak eta esatea hitza kendu zaiola inori ez, lehentasunez, Iosu, Alderdi Sozialistako kide bezala eta emailez galderak erregistratu dituzun bezala, zuri emango dizut lehentasunez hitza, ongi baderitzozu eta galderak egin nahi badituzu.

tenido en el procedimiento, yo entiendo que las y los técnicos que han participado aquí han sido muchos; produce alegría, al menos a mí, que por fin esta contratación salga a adjudicación y espero que la contratación se realice correctamente, porque la situación que ahora vivimos no me gusta en absoluto, y creo que hay que solucionarla cuanto antes.

**EL SR CARRION:** Muchas gracias.

**El SR ALCALDE:** ¿Necesitas alguna otra explicación sobre los decretos? Pues...

**11.-RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Dª Alaitz Zabala Zarauz ha abandonado la sesión a las 20:35, en el punto de Ruegos y Preguntas.

Intervenciones:

**EL SR ALCALDE:** Pasaremos al punto final, al punto de ruegos y preguntas.

Aquí los miembros del Partido Socialista me han pasado esta vez por email una serie de preguntas, así que os cedo la palabra.

**EL SR ALVAREZ:** Gonzalo, tú tienes que preguntar también, ¿no?

**EL SR CARRIÓN:** Te ha dado a ti la palabra primero.

**EL SR ALCALDE:** No, perdón, perdón, Iosu por aclarar, por aclarar. No le he quitado la palabra a nadie, Iosu es que estamos en el punto de ruegos y preguntas, y como haces habitualmente, puedes dirigirte con una mirada brillante a tus compañeros/as, pero como es habitual, en este pleno se prioriza a quienes introducen las preguntas por escrito, como hemos hecho en otros Plenos, y poner cara de asombro y decir que a alguien se le ha quitado la palabra dando preferencia a otra persona, no. Iosu, puesto que has registrado las preguntas por email, y como miembro del Partido Socialista, a ti le doy la palabra si te parece bien, y si quieres, puedes proceder a preguntar.

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

**ALVAREZ JAUNA:** Aliantza santu batean gaudenez, berari utzi diot hitza…

Beno, ikus dezagun, galderetan... nire galderak dira pixka bat... aurrekontu batzuetan Gobernu-Taldeak partida batzuk onartu zituen, eta, ondoren, kredituen aldaketa ere bai. Orduan, ni normalean... eta ulertzen dut amaitzear gaudenean pixka bat bukatzen ari garela... esan nahi dut, urtea... kasu honetan 2024a, errepasoa egiten ari naiz, nik beti esaten nuen norbaitek hurrengo urterako aurrekontu batzuk egin behar dituenean, ondo dagoela aldeak edo aldeek nolabait ezarri dutena bete badute, hartutako konpromisoa bete badute, eta ildo horretatik proposamenak pixka bat bideratzen dira guk, ikuspuntu honetatik,... tira... kasu honetan aurrekontuetan onartu genuenera, adibidez... bonodendako partida bat dago, eta jakin nahi dut une honetan nola dagoen, nolabait urrian gaude, azaroan eta abenduan udalak ateratzeko ideiaren bat duen... ba apur bat bonodendaren gaia... izan ere, urtero egiten denez….
Galderak banan-banan egingo dugu?

**ALKATE JAUNA:** Bai, hobeto. Nahi baduzu erantzutea igual hobeto banaka, ez? Zeren kide desberdinei bideratuak dira.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bueno, bale. Denden inguruan kontu-hartzailearekin hitz egin genuen bere garaian ea nola egin genezakeen udaletik ateratzeko, izan ere teknikariek adierazi ziguten Eusko Jaurlaritzak jada ez zuela asmorik edukiko aurten… bueno, beraiek ateratzen duten bonodenda hori ateratzeko. Orduan, kontu-hartzailetzatik esaten ziguten udalak atera beharko balitu nolabait dirulaguntza bezala ulertuko zirela, eta ondorioz dirulaguntzen legea aplikatu behar zitzaiela. Eta klaro, horrek gauza asko zailtzen zuen, Ibili ginen…Irungo Udalak baditu bono propio batzuk eta ibili ginen aztertzen ea nola egin zitekeen, horrek eraman gintuen Gipuzkoako Ganbararekin harremanetan jartzera, eta iritsi ginen nolabaiteko akordio batetara, bueno, beraiek prest egongo liratekeela horiek kudeatzen egun jakin batzuetan, eta ordutegi batekin…bueno, baita ere pixka bat murritzagoa. Baina, ze ondo, atzoko notizia dela,

**EL SR ALVAREZ:** Es que como estamos en una santa alianza le he dejado la palabra a…

Bueno, a ver, en las preguntas…mis preguntas son un poco…tuvimos unos presupuestos en los cuales hubo unas partidas aprobadas por el Equipo de Gobierno, y después también la modificación de créditos. Entonces, yo siempre… normalmente he solido…y entiendo que cuando acabamos… vamos un poco acabando…me refiero, el año…en este caso el 2024, haciendo el repaso, yo siempre solía decir que cuando alguien tiene que hacer unos presupuestos para el año siguiente, está bien si
la parte, o las partes han cumplido lo que de alguna forma han establecido, se han comprometido, y en ese sentido las propuestas van dirigidas un poco en lo que nosotros desde el punto de vista…bueno…habíamos aprobado en este caso en los presupuestos, que son por ejemplo… hay una partida de bonodenda que quiero saber si en este momento como está, si de alguna forma estamos en el mes de octubre, si en noviembre y diciembre hay alguna idea por parte del ayuntamiento de sacar… pues un poco el tema del bonodenda… pues como se hace todos los años. ¿Realizamos las preguntas de una en una?

**EL SR ALCALDE:** Sí, mejor. Si quieres que contestemos igual mejor individualmente, ¿no? Porque las preguntas están dirigidas a diferentes miembros.

**LA SRA URTIZBEREA:** Bueno, vale. En torno al comercio hablamos con el interventor en su día de cómo podíamos hacer para sacar el programa de bonodenda desde el ayuntamiento, porque el personal técnico nos indicó que el Gobierno Vasco ya no tiene intención este año de sacar el bonotienda como los últimos años. Entonces, desde Intervención nos decían que si el ayuntamiento tuviera que sacarlo de alguna manera se entenderían como subvenciones, por lo que les era de aplicación la ley de subvenciones. Y claro, eso complicabn mucho las cosas. Estuvimos... el Ayuntamiento de Irun tiene unos bonos propios y estudiamos cómo se podía hacer; eso nos llevó a contactar con la Cámara de Gipuzkoa y llegamos a un cierto acuerdo. Bueno, la Cámara estaría dispuesta a gestionarlos en determinados días y con un horario... bueno, sería también algo más reducido. Pero bien, ayer recibimos una buena



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

Eusko Jaurlaritzak erabaki duela aurten ere berriro bonodenda hori ateratzea eta aurten horretara atxikiko gara, baina egia da gure agintaldi planean ere horrela agertzen dela bono propioak egiteko lanketa horretan jarraituko dugu, izan ere, Hernanik adibidez baditu eta askoz ere eredu egokiagoa iruditzen zaigu. Gainera, azkenaldian merkatariekin bileran adierazi zutelako duda sartzen ari zitzaiela ea ongi edo gaizki egiten zien bono hauek, izan ere batez ere azkeneko bi urteetan detektatu zuten jendeak ez zuela erosten bonoak atera arte. Nolabait anuntziatzen zen bonodenda hori irekiko zela, eta beraz jendeak itxaroten zuela hori martxan egon arte, eta bueno bai nabaritu zutela nolabaiteko kalte bat edo. Orduan hori hausnarketarako daukagu beraiekin, beraz, horixe.

noticia, que el Gobierno Vasco ha decidido volver a sacar el bonodenda este año, y nos vamos a adherir a él. Pero es cierto que en nuestro plan de mandato también aparece como tal la elaboración de bonos propios, ya que Hernani, por ejemplo, dispone de ellos y nos parece un modelo mucho más adecuado. Además, en la reunión mantenida con comerciantes en los últimos tiempos manifestaron que ponían en duda si les beneficiaban o les perjudicaban estos bonos, sobre todo teniendo en cuenta que en los dos últimos años habían detectado que la gente no compraba hasta que salían los bonos. De alguna manera se anunciaba que se iba a iniciar el programa de bonodenda, por lo que la gente esperaba hasta que eso estuviera en marcha. Y bueno…sí que habían notado algún tipo de perjuicio. Entonces tenemos pendiente reflexionar el tema con ellos/as, por lo tanto, eso.

**ALVAREZ JAUNA:** Eta orduan gobernuak atera behar dituela hil honetan ez da hala?, edo datorren hilean…eta orduan horiekin batera?

**EL SR. ALVAREZ:** ¿Y entonces, el gobierno tiene intención de sacarlos este mes, ¿no? ¿o el mes que viene... y entonces con esos bonos?

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, atxikituko gara beraiei, juridikoki askoz ere errazagoa delako…

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, nos adheriremos a ellos, porque jurídicamente es mucho más fácil...

**ALVAREZ JAUNA:** Eta hasi dira?

**EL SR ALVAREZ:** ¿Y ya han comenzado?

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, bai.

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, sí.

**ALVAREZ JAUNA:** Beste gai bat zen proyecto ascensor Santiago kalea. Hor, nik uste dut zela…Santiago kalean zen, nik uste dut, Claudia inguruan edo hor, ez da hala? Orduan, proiektu hori onartu zen, jakin nola dagoen momentu honetan.

**EL SR ALVAREZ:** Otro tema era el proyecto de ascensor en la calle Santiago. Ahí, yo creo que era... era en la calle Santiago, yo creo, en la zona de Claudia o ahí, ¿no es así? Entonces se aprobó ese proyecto, saber cómo está en estos momentos.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, proposatu zenuten eta oso begi onez ikusten genuen, izan ere iruditzen zaigu oso proiektu interesgarria. Zer gertatzen da? Horrelako estimazio bat egin dela, obra horrek zenbateko kostua izan dezakeen, 300.000 eurotik gorako kostua izango du, beraz proiektua ere ezin da kontratazio txiki batekin egin eta lizitaziora atera behar da. Oraintxe bertan kontratazio planean baditugu beste gauza batzuk, eta bueno…bada hortxe… en la cola.

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, lo propusisteis y lo veíamos muy bien porque nos parece un proyecto muy interesante. ¿Qué pasa? Que se ha realizado una estimación del coste de esta obra, que puede superar los 300.000 euros, por lo que el proyecto tampoco puede realizarse con una contratación menor y debe sacarse a licitación. Ahora mismo tenemos otras cosas en el plan de contratación y bueno... ahí... en la cola.

**ALVAREZ JAUNA:** Beste…Lauhaizeta argiztatzeko proiektua. Nik badakit hemen zerbait egin dela. Ez dakit momentu honetan nola

**EL SR ALVAREZ:** Otro... proyecto del alumbrado de Cuatrovientos. Yo sé que aquí se ha hecho algo. No sé cómo está en este momento... de

ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

dagoen…Lauhaizetakoa.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, Lauhaizeta Mendeluko Iosu Langile eremu horretako errepidean argiztapena jartzeko diru-partida jaso zen, hemen hainbat aldagai egon dira mahai gainean, alde batetik hausnarketa izan da: zein jartzen dugu, fotovoltaikoa edo argiteria ohikoa? Zanjak ireki eta kableatuak sartu. Horretan ari ginela denok biziki bizitzen ditugun uholdeen arazo hori hor daukagu, tartean Salaberria Ingeniaritzaren uholdegarritasunaren azterketa iritsi zitzaigun, ezagutzen dituzue ze neurri edo ze babes mota jarri dezakegun, valga la redundancia, mota bat egiteko proposatzen zaigu prezeski eremu horretan, eta bueno, horrek bai eraman gaitu erabakitzera ez dugula ohiko argiteria bat jarriko, baizik eta fotovoltaikoetara joko dugula. Hiru aurrekontu eskatuta daude, eta arkitekto teknikoa txostena egiten dabil, zeinek eramango duen kontratazioa, pentsatzen dut datorren astean edo esleipena egingo dela.

**ALVAREZ JAUNA:** Proiektua?

**URTIZBEREA ANDREA:** Ez, ez, jada jartzeko. Bai, bai.

**ALVAREZ JAUNA:** San Markos parkean esku-hartzeko proiektua.

**URTIZBEREA ANDREA:** Bai, hemen ere hausnarketa prozesu bat egin genuen, izan ere gauza zen, nola…ze esku-hartzea egingo da? Parkeari izaera aldatuko zaio eta rediseinu bat egingo zaio? edo dagoena txukundu egingo da eta auzotarren beharrei erantzun? eta bueno, hor Auzobihotzen prozesua egin genuenean Puntal eta Alamedako bizilagunek adierazi zigutenarengatik, oso modu irmoan adierazten ziguten parkeak duen izaera jarraitzeko asmoa zutela, ez? ez zutela nahi…bueno ez zutela beraien spot hori galdu nahi. Orduan hor gero baloratu genuen proiektu batera jotzen bagenuen nahigabean proiektua egiten hasten zaren momentuan parkeak izaera hori galtzeko arriskua bazuela, eta beraz ba bueno teknikoki aztertu da zein izango litzatekeen esku-hartzea, eta hor baloratu da, noski, genero ikuspegi batetik argiteria…bueno, hor bai, hobetu behar da, ibilbideak ere hobetu behar dira,

Cuatrovientos.

**LA SRA URTIZBEREA:** Sí, se recogió la partida destinada a la instalación de iluminación en la carretera de Iosu Langile de la zona de Cuatrovientos Mendelu. Aquí han estado encima de la mesa diversas variables, por un lado se ha reflexionado: ¿cuál ponemos, la fotovoltaica o la iluminación convencional? Abrir zanjas e introducir cableados. Estando en el tema nos surgió el problema de las inundaciones en las que estamos inmersos todas y todos. Nos llegó el estudio de inundabilidad de la Ingeniería Salaberria, ya conocéis qué medidas o qué tipo de protecciones podemos establecer, valga la redundancia, se nos propone establecer un tipo en especial en esa zona, y bueno, eso nos ha llevado a decidir que no vamos a poner un alumbrado convencional, sino que vamos a recurrir a los fotovoltaicos. Hay tres presupuestos solicitados y el arquitecto técnico está haciendo el informe, quién va a llevar la contratación, supongo que la semana que viene más o menos se va a adjudicar.

**EL SR ALVAREZ:** ¿El proyecto?

**LA SRA URTIZBEREA:** No, no, para ponerlo ya. Sí, sí.

**EL SR ALVAREZ:** Proyecto de actuación en el parque de San Marcos.

**LA SRA URTIZBERA:** Sí, también aquí realizamos un proceso de reflexión porque la cosa era, ¿qué tipo... qué intervención se va a hacer? ¿Se cambiará la naturaleza del parque y se realizará un rediseño? o ¿se adecúa lo existente y se da respuesta a las necesidades de los vecinos? y bueno, cuando realizamos el proceso de Auzobihotz, los vecinos del Puntal y de la Alameda nos manifestaron de forma muy contundente que tenían la intención de que se continuara con el carácter que tiene el parque, ¿no? Bueno… no querían perder su spot. Entonces valoramos que si optábamos por un proyecto, en el momento en que empiezas a realizarlo el parque corría riesgo de perder su carácter, por lo que se ha estudiado técnicamente cuál sería la intervención, y ahí se ha valorado, claro, desde una perspectiva de género la iluminación... Bueno, ahí sí, hay que mejorar, también hay que mejorar los recorridos,



ESKU6f3827fa-9c5d-4527-8665-c0aa0d7d9123

